1. Frente a las conductas contrarias a lo dispuesto en la presente norma en materia de cláusulas abusivas, contratos celebrados fuera de establecimiento mercantil, venta a distancia, garantías en la venta de productos y viajes combinados, estarán legitimados para ejercitar la acción de cesación:

a) El Instituto Nacional del Consumo y los órganos o entidades correspondientes de las comunidades autónomas y de las corporaciones locales competentes en materia de defensa de los consumidores y usuarios.

b) Las asociaciones de consumidores y usuarios que reúnan los requisitos establecidos en esta norma o, en su caso, en la legislación autonómica en materia de defensa de los consumidores y usuarios.

c) El Ministerio Fiscal.

d) Las entidades de otros Estados miembros de la Comunidad Europea constituidas para la protección de los intereses colectivos y de los intereses difusos de los consumidores y usuarios que estén habilitadas mediante su inclusión en la lista publicada a tal fin en el «Diario Oficial de las Comunidades Europeas».

Los Jueces y Tribunales aceptarán dicha lista como prueba de la capacidad de la entidad habilitada para ser parte, sin perjuicio de examinar si la finalidad de la misma y los intereses afectados legitiman el ejercicio de la acción.

2. Todas las entidades citadas en el apartado anterior podrán personarse en los procesos promovidos por otra cualquiera de ellas, si lo estiman oportuno para la defensa de los intereses que representan.

3. La legitimación para el ejercicio de la acción de cesación frente al resto de conductas de empresarios contrarias a la presente norma que lesionen intereses colectivos o intereses difusos de los consumidores y usuarios, se regirá por lo dispuesto en el artículo 11, apartados 2 y 3, de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Asimismo, estarán legitimados para el ejercicio de esta acción:

a) El Instituto Nacional del Consumo y los órganos o entidades correspondientes de las comunidades autónomas y de las corporaciones locales competentes en materia de defensa de los consumidores.

b) El Ministerio Fiscal.

54. artikulua. Legitimazioa

1. Abusuzko klausulei, saltokiz kanpo egindako kontratuei, urrunetiko salmentari eta produktuen eta bidaia konbinatuen salmentako garantiei dagokionez arau honek xedatzen duenaren kontrakoak diren jokabideen aurka bukarazte-akzioa baliatzeko legitimaturik daude:

a) Kontsumo Institutu Nazionala eta autonomia-erkidegoetan edo toki-korporazioetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari dagokionez eskudun diren organo edo entitateak.

b) Arau honetan edo legeria autonomikoan kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari dagozkion gaietan ezarritako betekizunak betetzen dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak.

c) Fiskaltza.

d) Europar Erkidegoko kide diren beste estatu batzuetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektiboak eta interes lausoak babesteko eraturiko entitateak, hartarako gaiturik badaude *Europar Erkidegoen Egunkari Ofizialean* argitaraturiko zerrendan sartuta.

Epaille eta auzitegiek zerrenda hori onartuko dute gaituriko entitateak alderdi izateko duen gaitasunaren frogatzat; hala ere, aztertuko dute ea entitatearen helburuak eta ukituriko interesek legitimataterik ematen duten akzioa baliatzeko.

2. Aurreko zenbakian aipaturiko entitate guztiak pertsonatu ahal izango dira haietariko beste edozeinek abiatuturiko prozesuetan, egoki irizten badiote ordezkatzin dituzten interesak defendatzeko.

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektiboari edo interes lausoei kalte egiten dieten eta arau honen kontrakoak diren gainerako enpresa-jokabideengatik bukarazte-akzioa baliatzeko legitimazioari dagokionez, Prozedura Zibilaren Legearen (1/2000 Legea, 2000ko urtarrilaren 7koa) 11. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan xedaturikoaren arabera jokatu da.

Orobat egongo dira legitimaturik akzio hori baliatzeko:

a) Kontsumo Institutu Nazionala eta autonomia-erkidegoetan edo toki-korporazioetan kontsumitzaileen defentsari dagokionez eskudun diren organo edo entitateak.

b) Fiskaltza.

Artículo 55. Acciones de cesación en otro Estado miembro de la Unión Europea

1. El Instituto Nacional del Consumo y los órganos o entidades correspondientes de las comunidades autónomas y de las corporaciones locales competentes en materia de defensa de los consumidores y usuarios podrán ejercitar acciones de cesación en otro Estado miembro de la Comunidad Europea, cuando estén incluidos en la lista publicada en el «Diario Oficial de las Comunidades Europeas».

El Ministerio de Justicia notificará a la Comisión Europea cada una de dichas entidades, con su denominación y finalidad, previa solicitud de dichos órganos o entidades, y dará traslado de esa notificación al Instituto Nacional del Consumo.

2. Las asociaciones de consumidores y usuarios presentes en el Consejo de Consumidores y Usuarios podrán ejercitar acciones de cesación en otro Estado miembro de la Comunidad Europea cuando estén incluidas en la lista publicada en el «Diario Oficial de las Comunidades Europeas», debiendo solicitar del Instituto Nacional del Consumo la incorporación a dicha lista.

El Ministerio de Justicia notificará a la Comisión Europea cada una de dichas entidades, con su denominación y finalidad, a instancia del Instituto Nacional del Consumo.

Artículo 56. Imprescriptibilidad de las acciones de cesación

Las acciones de cesación previstas en este título son imprescriptibles, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 19, apartado 2 de la Ley 7/1998, de 13 de abril, sobre condiciones generales de la contratación en relación con las condiciones generales inscritas en el Registro de Condiciones Generales de la Contratación.

CAPÍTULO II

Sistema Arbitral del Consumo

Artículo 57. Sistema Arbitral del Consumo

1. El Sistema Arbitral del Consumo es el sistema extrajudicial de resolución de conflictos entre los consumidores y usuarios y los empresarios a través del cual, sin formalidades especiales y con carácter vinculante y ejecutivo para ambas partes, se resuelven las reclamaciones de los consumidores y usuarios, siempre que el conflicto no verse sobre intoxicación, lesión o muerte o existan indicios racionales de delito.

55. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu bateko bukarazte-akzioak

1. Europar Erkidegoko kide den beste estatu batean bukarazte-akzioak baliatu ahal izango dituzte Kontsumo Institutu Nazionalak eta autonomia-erki-degoetan edo toki-korporazioetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari dagokionez eskudun diren organo edo entitateek, *Europar Erkidegoen Egunkari Ofizialean* argitaraturiko zerrendan sarturik badaude.

Justizia Ministerioak entitate horien berri emango dio Europako Batzordeari, bakoitzaren izena eta helburuak adieraziz, aipaturiko organo edo entitateek eskaera egin eta gero, eta jakinarazpen horren berri emango dio Kontsumo Institutu Nazionalari.

2. Europar Erkidegoko kide den beste estatu batean bukarazte-akzioak baliatu ahal izango dituzte kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseiluan dauden kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek, *Europar Erkidegoen Egunkari Ofizialean* argitaraturiko zerrendan sarturik badaude. Kontsumo Institutu Nazionalari eskatu beharko zaio zerrenda horretan sartzeko.

Justizia Ministerioak entitate horien berri emango dio Europako Batzordeari, bakoitzaren izena eta helburuak adieraziz, Kontsumo Institutu Nazionalaren eskariz.

56. artikulua. Bukarazte-akzioen preskripziorik eza

Titulu honetan aurreikusitako bukarazte-akzioek ez dute preskribatzen, hargatik eragotzi gabe kontratu-baldintzei buruzko 1998ko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen 19. artikuluko 2. zenbakian Kontratu Baldintza Orokorren Erregistroan inskribaturiko baldintza orokorrei dagokienez xedaturikoa.

II. KAPITULUA

Kontsumoko Arbitraje Sistema

57. artikulua. Kontsumoko Arbitraje Sistema

1. Kontsumoko Arbitraje Sistema kontsumitzaile eta erabiltzaileen eta enpresaburuen arteko gatazkak ebazteko judizioz kanpoko sistema da, eta haren bitartez, formaltasun berezirik gabe eta alderdi bientzako lotura-indarrekoa eta betearazlea den modu batean, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazioak ebazten dira, baldin eta gatazka ez bada intoxikazio, lesio edo heriotzei buruzkoa edo arrazoizko delitu-aztarnarik ez badago.

2. La organización, gestión y administración del Sistema Arbitral de Consumo y el procedimiento de resolución de los conflictos, se establecerá reglamentariamente por el Gobierno. En dicho reglamento podrá preverse la decisión en equidad, salvo que las partes opten expresamente por el arbitraje de derecho, el procedimiento a través del cual se administrará el arbitraje electrónico, los supuestos en que podrá interponerse una reclamación ante la Junta Arbitral Nacional frente a las resoluciones de las Juntas arbitrales territoriales sobre admisión o inadmisión de las solicitudes de arbitraje y los casos en que actuará un árbitro único en la administración del arbitraje de consumo.

3. Los órganos arbitrales estarán integrados por representantes de los sectores empresariales interesados, de las organizaciones de consumidores y usuarios y de las Administraciones públicas.

4. Los convenios arbitrales con los consumidores distintos del arbitraje de consumo previsto en este artículo, sólo podrán pactarse una vez surgido el conflicto material o controversia entre las partes del contrato, salvo que se trate de la sumisión a órganos de arbitraje institucionales creados por normas legales o reglamentarias para un sector o un supuesto específico.

Los convenios arbitrales pactados contraviniendo lo dispuesto en el párrafo precedente serán nulos.

Artículo 58. Sumisión al Sistema Arbitral del Consumo

1. La sumisión de las partes al Sistema Arbitral del Consumo será voluntaria y deberá constar expresamente, por escrito, por medios electrónicos o en cualquier otra forma admitida legalmente que permita tener constancia del acuerdo.

2. Quedarán sin efecto los convenios arbitrales y las ofertas públicas de adhesión al arbitraje de consumo formalizados por quienes sean declarados en concurso de acreedores. A tal fin, el auto de declaración de concurso será notificado al órgano a través del cual se hubiere formalizado el convenio y a la Junta Arbitral Nacional, quedando desde ese momento el deudor concursado excluido a todos los efectos del Sistema Arbitral de Consumo.

2. Gobernuak erregelamenduz ezarriko du Kontsumoko Arbitraje Sistema antolatzeko, kudeatzeko eta administratzeko modua eta gatazkak ebazteko prozedura. Erregelamendu horretan, aurreikusi ahal izango da ekitatezko arbitrajean erabakitzea, alderdiek ez badute espresuki hautatzen zuzenbidezko arbitrajea, zer prozeduraren bitartez administratu ahal izango den arbitraje elektronikoa, zer kasutan jarri ahal izango zaion erreklamazioa Arbitraje Junta Nazionalen arbitraje-eskaerak onartzeari edo ez onartzeari buruz lurraldeetako arbitraje-juntek ebatzitakoari, eta zer kasutan jardungo duen arbitro bakar batek kontsumo-arbitrajea administratzean.

3. Arbitraje-organoetako kide izango dira: enpresaburu-sektore interesdunen ordezkariak, kontsumitzaile- eta erabiltzaile-erakundeen ordezkariak eta administrazio publikoetako ordezkariak.

4. Artikulu honetan aurreikusiriko kontsumo-arbitrajeaz besteko arbitraje-hitzarmenik ezin lotuko da kontsumitzaileekin behin kontratuko alderdien artean gatazka materiala edo eztabaida sortutakoan baino; salbuespen dira sektore batentzat edo kasu berezi batentzat legez edo erregelamenduz sorturiko arbitraje-organo instituzionalen mende jartzeko hitzarmenak.

Deusez izango dira aurreko paragrafoan xedaturikoaren kontra egindako arbitraje-hitzarmenak.

58. artikulua. Kontsumoko Arbitraje Sistemaren mende jartzea

1. Alderdiak Kontsumoko Arbitraje Sistemaren mende jartzea borondatezkoa izango da, eta espresuki jaso beharko da idatziz, baliabide elektronikoz edo akordioa jasotzeko aukera ematen duen eta legez onartuta dagoen beste edozein modutan.

2. Efekturik gabe geldituko dira hartzekodun-konkurtsopeko deklaraturik daudenek formalizaturiko arbitraje-hitzarmenak eta arbitrajeari atxikitzeko eskaintza publikoak. Horretarako, konkurtsoa deklaratzeko autoa jakinarazi beharko zaie hitzarmena formalizatu duen organoari eta Arbitraje Junta Nazionalari, eta une horretatik aurrera konkurtsopeko zorduna Kontsumoko Arbitraje Sistematik kanpo geldituko da ondorio guztietarako.

LIBRO SEGUNDO
CONTRATOS Y GARANTÍAS

TÍTULO I
CONTRATOS CON LOS CONSUMIDORES
Y USUARIOS

CAPÍTULO I
Disposiciones generales

Artículo 59. Ámbito de aplicación

1. Son contratos con consumidores y usuarios los realizados entre un consumidor o un usuario y un empresario.

2. Los contratos con consumidores y usuarios se regirán, en todo lo que no esté expresamente establecido en esta norma o en leyes especiales, por las disposiciones legales que regulan los contratos civiles y mercantiles.

La regulación sectorial de los contratos con los consumidores, en todo caso, debe respetar el nivel mínimo de protección dispensada en esta norma.

3. Los contratos con consumidores y usuarios que incorporen condiciones generales de la contratación están sometidos, además, a la Ley 7/1998, de 13 de abril, sobre condiciones generales de la contratación.

Artículo 60. Información previa al contrato

1. Antes de contratar, el empresario deberá poner a disposición del consumidor y usuario de forma clara, comprensible y adaptada a las circunstancias la información relevante, veraz y suficiente sobre las características esenciales del contrato, en particular sobre sus condiciones jurídicas y económicas, y de los bienes o servicios objeto del mismo.

2. A tales efectos serán relevantes las obligaciones de información sobre los bienes o servicios establecidas en esta norma y normas que resulten de aplicación y, además:

a) Nombre, razón social y domicilio completo del responsable de la oferta contractual y, en su caso, el nombre, razón social y la dirección completa del comerciante por cuya cuenta actúa.

BIGARREN LIBURUA
KONTRATUAK ETA BERMEAK

I. TITULUA

KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEKIN EGINDAKO
KONTRATUAK

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

59. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaile baten eta enpresaburu baten artean egindako kontratuak dira kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratuak.

2. Kontratu zibilak eta merkataritzako kontratuak arautzen dituzten legedapenek aginduko dute kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratuetan, arau honetan edo lege berezietan berariaz ezarri ez den guztirako.

Kontsumitzaileekiko kontratuen arautze sektorialak, kasu guztietan, arau honetan ezarritako gutxieneko babes-maila errespetatu behar du.

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratuak, kontratu-baldintza orokorrak dituzten kasuetan, gainera, kontratu-baldintza orokorrei buruzko 1998ko apirilaren 13ko 7/1998 Legearen mende daude.

60. artikulua. Kontratu aurreko informazioa

1. Kontratua egin aurretik, enpresaburuak kontsumitzaile eta erabiltzaileen esku jarri behar du, argi, era ulergarrian eta inguruabarrei dagokien moduan, kontratuaren funtsezko ezaugarriei buruzko eta bereziki kontratuaren nahiz kontratatzen diren ondasun edo zerbitzuen baldintza juridiko eta ekonomikoei buruzko informazio garrantzitsua, egiazko eta nahikoa.

2. Ondorio horietarako, garrantzitsuak izango dira ondasun edo zerbitzuei buruzko informazioaz arau honetan eta aplikatzekoak diren arauetan ezartzen diren informazio-betebeharrak, eta beste hauek:

a) Kontratu-eskaintzaren erantzule denaren izena, sozietate-izena eta helbide osoa, eta, merkatarri baten kontura ari bada, haren izena, sozietate-izena eta helbide osoa.

b) Precio completo, incluidos los impuestos, o presupuesto, en su caso. En toda información al consumidor sobre el precio de los bienes o servicios, incluida la publicidad, se informará del precio final completo, desglosando, en su caso, el importe de los incrementos o descuentos que sean de aplicación, de los gastos que se repercutan al consumidor y usuario y de los gastos adicionales por servicios accesorios, financiación u otras condiciones de pago similares.

c) Fecha de entrega, ejecución del contrato y duración.

d) Procedimiento de que dispone el consumidor para poner fin al contrato.

e) Garantías ofrecidas.

f) Lengua o lenguas en las que podrá formalizarse el contrato, cuando ésta no sea la lengua en la que se le ha ofrecido la información previa a la contratación.

g) Existencia del derecho de desistimiento del contrato que pueda corresponder al consumidor y usuario, el plazo y la forma de ejercitarlo.

h) La dirección completa en la que el consumidor o usuario puede presentar sus quejas y reclamaciones, así como, en su caso, la información sobre el sistema extrajudicial de resolución de conflictos prevista en el artículo 21.4.

3. La información precontractual debe facilitarse al consumidor de forma gratuita.

Artículo 61. Integración de la oferta, promoción y publicidad en el contrato

1. La oferta, promoción y publicidad de los bienes o servicios se ajustarán a su naturaleza, características, utilidad o finalidad y a las condiciones jurídicas o económicas de la contratación.

2. El contenido de la oferta, promoción o publicidad, las prestaciones propias de cada bien o servicio, las condiciones jurídicas o económicas y garantías ofrecidas serán exigibles por los consumidores y usuarios, aún cuando no figuren expresamente en el contrato celebrado o en el documento o comprobante recibido y deberán tenerse en cuenta en la determinación del principio de conformidad con el contrato.

3. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, si el contrato celebrado contuviese cláusulas más beneficiosas, estas prevalecerán sobre el contenido de la oferta, promoción o publicidad.

b) Prezio osoa, zergak barne, edo, hala badagokio, aurrekontua. Ondasun edo zerbitzuen prezioaz kontsumitzaileari emandako edozein informaziotan, publizitatea barne, guztizko azken prezioa adieraziko da, eta, hala badagokio, zenbateko hauek bereiz emango dira: aplikatzekoak diren gehikuntzak edo deskontuak; kontsumitzaile eta erabiltzaileari egozten zaizkion gastuak; eta zerbitzu osagarri, finantzaketa edo gisa horretako beste ordainketa-baldintza bazuengatiko gastu gehigarriak.

c) Entrega-data, kontratuaren gauzatzea eta iraupena.

d) Kontsumitzaileak kontratua amaitzeko erabil dezakeen prozedura.

e) Eskaintako bermeak.

f) Zer hizkuntzatan —batean edo gehiagotan— formalizatu ahal izango den kontratua, hizkuntza hori ez bada kontratu aurreko informazioa eskaini den bera.

g) Kontsumitzaile edo erabiltzaileari kontratua utziesteko eskubidea dago-kion, eta zer epe eta modu dituen eskubide hori baliatzeko.

h) Kontsumitzaile edo erabiltzaileak bere kexa eta erreklamazioak aurrez ditzakeen helbidea, osorik; halaber, hala badagokio, 21.4 artikuluan aurreikusitako gatazkak ebazteko judizior kanpoko sistemari buruzko informazioa.

3. Kontratu aurreko informazioa doan eman behar zaio kontsumitzaileari.

61. artikulua. Eskaintza, sustapena eta publizitatea kontratuan integratzea

1. Kontratu edo zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea bat etorriko dira haien izaerarekin, ezaugarriekin, erabilgarritasun edo xedearekin eta kontratuaren baldintza juridiko edo ekonomikoekin.

2. Eskaintza, sustapen edo publizitatearen edukia, ondasun edo zerbitzu bakoitzaren prestazioak, baldintza juridiko edo ekonomikoak eta eskaintako bermeak eskatzeko aukera izan behar dute kontsumitzaile eta erabiltzaileek, nahiz eta espresuki agertu ez egindako kontratuan edo jasotako agiri edo egiaztagirian, eta kontuan hartu behar dira kontratuaren araberrako izatearen printzipioa erabakitzean.

3. Aurreko atalean xedaturikoa gorabehera, egindako kontratuak klausula onuragarriagoak baditu, horiek nagusituko zaizkio eskaintza, sustapen edo publizitatearen edukiari.

Artículo 62. Contrato

1. En la contratación con consumidores y usuarios debe constar de forma inequívoca su voluntad de contratar o, en su caso, de poner fin al contrato.

2. Se prohíben, en los contratos con consumidores y usuarios, las cláusulas que impongan obstáculos onerosos o desproporcionados para el ejercicio de los derechos reconocidos al consumidor en el contrato.

3. En particular, en los contratos de prestación de servicios o suministro de productos de tracto sucesivo o continuado se prohíben las cláusulas que establezcan plazos de duración excesiva o limitaciones que excluyan u obstaculicen el derecho del consumidor y usuario a poner fin al contrato.

El consumidor podrá ejercer su derecho a poner fin al contrato en la misma forma en que lo celebró, sin ningún tipo de sanción o de cargas onerosas o desproporcionadas, tales como la pérdida de las cantidades abonadas por adelantado, el abono de cantidades por servicios no prestados efectivamente, la ejecución unilateral de las cláusulas penales que se hubieran fijado contractualmente o la fijación de indemnizaciones que no se correspondan con los daños efectivamente causados.

4. Los contratos de prestación de servicios o suministro de productos de tracto sucesivo o continuado deberán contemplar expresamente el procedimiento a través del cual el consumidor y usuario puede ejercer su derecho a poner fin al contrato.

Artículo 63. Confirmación documental de la contratación realizada

1. En los contratos con consumidores y usuarios se entregará recibo justificante, copia o documento acreditativo con las condiciones esenciales de la operación, incluidas las condiciones generales de la contratación, aceptadas y firmadas por el consumidor y usuario, cuando éstas sean utilizadas en la contratación.

2. Salvo lo previsto legalmente en relación con los contratos que, por prescripción legal, deban formalizarse en escritura pública, la formalización del contrato será gratuita para el consumidor, cuando legal o reglamentariamente deba documentarse éste por escrito o en cualquier otro soporte de naturaleza duradera.

Artículo 64. Documentación complementaria en la compraventa de viviendas

En el caso de viviendas cuya primera transmisión se efectúe después de la entrada en vigor de esta norma, se facilitará además la documentación prevista en la Ley de Ordenación de la Edificación o norma autonómica que resulte de aplicación.

62. artikulua. Kontratua

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileekin egindako kontratuetan, argi eta garbi jasorik geratu behar du kontratua egiteko borondatea duela kontsumitzaileak, edo kontratua amaitzekoa, hori bada kasua.

2. Debeku dira, kontsumitzaile eta erabiltzaileekin egindako kontratuetan, kontsumitzaileari kontratuan aitortzen zaizkion eskubideak baliatzeari kostuzko edo neurritz kanpoko oztopoak ezartzen dizkioten klausulak.

3. Zehazki, segidako edo jarraipenezko traktuko zerbitzuak emateko edo produktuak hornitzeko kontratuetan, debeku dira kontratu-epe luzeegiak ezartzen dituzten klausulak, edo kontsumitzaile eta erabiltzaileak kontratua amaitzeko duen eskubidea kentzen edo oztopatzen dutenak.

Kontratua egiten zuten modu berean baliatu ahal izango du kontsumitzaileak kontratua amaitzeko eskubidea; ez du izango inolako zehapenik edo kostuzko edo neurritz kanpoko kargarik, hala nola aurrez ordainduriko zenbatekoak galtzea, egiazki eman gabeko zerbitzuengatik ordaintzea, kontratuz finkaturiko zigor-klausulak alde bakar baten erabakiz gauzatzea, edo egiazki eragindako kalteei ez dagozkien kalte-ordainak ezartzea.

4. Segidako edo jarraipenezko traktuko zerbitzuak emateko edo ondasunak hornitzeko kontratuetan, espresuki aurreikusi beharko da zein prozeduraren bidez baliatu ahal izango duen kontsumitzaile eta erabiltzaileak kontratua amaitzeko eskubidea.

63. artikulua. Egindako kontratua agiriz egiaztatzea

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratuak egitean, jasotze-agiria, kopia edo egiaztatzea emango da, eragiketaren funtsezko baldintzak biltzen dituen, horien artean direlarik kontratu-baldintza orokorrak, kontsumitzaile eta erabiltzaileak onartu eta sinatuak, kontratuan halakorik erabili denean.

2. Legez eskritura publikoan formalizatu behar diren kontratuei dagokien legez aurreikusitakoa salbu, kontsumitzailearentzat doakoa izango da kontratua formalizatzea, legez edo erregelamenduz kontratu hori idatzita edo beste edozein euskarri iraunkorretan jaso behar denean.

64. artikulua. Etxebizitza-salerostetako agiri osagarriak

Lehen eskualdaketa arau hau indarrean sartu ondoren egiten den etxebizitzaren kasuan, orobat emango da Eraikuntza Arautze Legean edo aplikatzen den autonomia-erkidegoko arauan aurreikusitako dokumentazioa.

Artículo 65. Integración del contrato

Los contratos con los consumidores y usuarios se integrarán, en beneficio del consumidor, conforme al principio de buena fe objetiva, también en los supuestos de omisión de información precontractual relevante.

Artículo 66. Comparecencia personal del consumidor y usuario

En la contratación con consumidores y usuarios no se podrá hacer obligatoria la comparecencia personal del consumidor y usuario para realizar cobros, pagos o trámites similares, debiendo garantizarse, en todo caso, la constancia del acto realizado.

Artículo 67. Puntos de conexión

1. Las normas de protección frente a las cláusulas abusivas contenidas en los artículos 82 a 91, ambos inclusive, serán aplicables a los consumidores y usuarios, cualquiera que sea la ley elegida por las partes para regir el contrato, cuando éste mantenga una estrecha relación con el territorio de un Estado miembro del Espacio Económico Europeo.

Se entenderá, en particular, que existe un vínculo estrecho cuando el empresario ejerciere sus actividades en uno o varios Estados miembros del Espacio Económico Europeo, o por cualquier medio de publicidad o comunicación dirigiere tales actividades a uno o varios Estados miembros y el contrato estuviere comprendido en el marco de esas actividades. En los contratos relativos a inmuebles se entenderá, asimismo, que existe un vínculo estrecho cuando se encuentren situados en el territorio de un Estado miembro.

2. Las normas de protección en materia de contratos a distancia y de garantías, contenidas respectivamente en los artículos 92 a 106, ambos inclusive, y en los artículos 114 a 126 ambos inclusive, serán aplicables a los consumidores y usuarios, cualquiera que sea la ley elegida por las partes para regir el contrato, cuando éste mantenga una estrecha relación con el territorio de un Estado miembro del Espacio Económico Europeo.

Se entenderá, en particular, que existe un vínculo estrecho cuando el bien haya de utilizarse, ejercitarse el derecho o realizarse la prestación en alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o el contrato se hubiera celebrado total o parcialmente en cualquiera de ellos, o una de las partes sea ciudadano de un Estado miembro de la Unión Europea o presente el negocio jurídico cualquier otra conexión análoga o vínculo estrecho con el territorio de la Unión Europea.

65. artikulua. Kontratua osatzea

Kontsumitzaile eta erabiltzaileekin egindako kontratuak fede on objektiboaren printzipioaren arabera osatuko dira, kontsumitzailearen alde, kontratu aurreko informazio garrantzitsua isildu den kasuetan ere.

66. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzailea bera agertzea

Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratuetan ezin behartuko da kontsumitzaile eta erabiltzailea bera agertzera kobrantzak, ordainketak edo antzeko izapideak egiteko, eta bermatu beharko da, kasu guztietan, jasorik geldituko dela egintza.

67. artikulua. Konexio-puntuak

1. 82.etik 91.era bitarteko artikuluetan (biak barne) jasoriko abusuzko klausulez babesteko arauak kontsumitzaile eta erabiltzaileei aplikatzekoak izango dira, edozein dela ere alderdiek kontratua eraentzeko aukeraturiko legea, kontratuak lotura estua duenean Europako Ekonomia Esparruko kide den estatu baten lurraldearekin.

Lotura estua dagoela ulertuko da, bereziki, enpresaburuak Europako Ekonomia Esparruko kide den estatu batean edo gehiagotan egiten dituen bere jarduerak, edo jarduera horiek, edozein publizitate modu edo hedabideren bitartez, estatu kide batera edo gehiagotara zuzentzen dituen eta kontratua jarduera horien esparruan dagoenean. Higiezinok buruzko kontratuen kasuan, orobat, lotura estua dagoela ulertuko da higiezinok estatu kide baten lurraldean badaude.

2. Urrunetik egindako kontratuei eta garantiei dagokienez emandako babes-arauak, hurrenez hurren 92.etik 106.era bitarteko artikuluetan (biak barne) eta 114.etik 126.era bitarteko artikuluetan (biak barne) jasoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei aplikatzekoak izango dira, edozein dela ere alderdiek kontratua eraentzeko aukeraturiko legea, kontratuak lotura estua duenean Europako Ekonomia Esparruko kide den estatu baten lurraldearekin.

Lotura estua dagoela ulertuko da, bereziki, Europar Batasuneko kide den estaturen batean erabili behar denean ondasuna, baliatu behar denean eskubidea edo eman behar denean prestazioa, edo kontratua osorik edo partez estatu horietako batean egin denean, edo alderdietako bat Europar Batasuneko kide den estatu bateko herritarra denean edo negozio juridikoak antzeko beste edozein konexio edo lotura estu duenean Europar Batasuneko lurraldearekin.

CAPÍTULO II

Derecho de desistimiento

Artículo 68. Contenido y régimen del derecho de desistimiento

1. El derecho de desistimiento de un contrato es la facultad del consumidor y usuario de dejar sin efecto el contrato celebrado, notificándose así a la otra parte contratante en el plazo establecido para el ejercicio de ese derecho, sin necesidad de justificar su decisión y sin penalización de ninguna clase.

Serán nulas de pleno derecho las cláusulas que impongan al consumidor y usuario una penalización por el ejercicio de su derecho de desistimiento.

2. El consumidor tendrá derecho a desistir del contrato en los supuestos previstos legal o reglamentariamente y cuando así se le reconozca en la oferta, promoción publicidad o en el propio contrato.

3. El derecho de desistimiento atribuido legalmente al consumidor y usuario se regirá en primer término por las disposiciones legales que lo establezcan en cada caso y en su defecto por lo dispuesto en este Título.

Artículo 69. Obligación de informar sobre el derecho de desistimiento

1. Cuando la ley atribuya el derecho de desistimiento al consumidor y usuario, el empresario contratante deberá informarle por escrito en el documento contractual, de manera clara, comprensible y precisa, del derecho de desistir del contrato y de los requisitos y consecuencias de su ejercicio, incluidas las modalidades de restitución del bien o servicio recibido. Deberá entregarle, además, un documento de desistimiento, identificado claramente como tal, que exprese el nombre y dirección de la persona a quien debe enviarse y los datos de identificación del contrato y de los contratantes a que se refiere.

2. Corresponde al empresario probar el cumplimiento de lo dispuesto en el apartado anterior.

Artículo 70. Formalidades para el ejercicio del desistimiento

El ejercicio del derecho de desistimiento no estará sujeto a formalidad alguna, bastando que se acredite en cualquier forma admitida en derecho. En todo caso se considerará válidamente ejercitado mediante el envío del documento de desistimiento o mediante la devolución de los productos recibidos.

II. KAPITULUA

Utziesten-eskubidea

68. artikulua. Utziesten-eskubidearen edukia eta araubidea

1. Kontratu bat utziesteko eskubidea da kontsumitzaile eta erabiltzaileak ahalmena izatea egindako kontratua efekturik gabe uzteko, eskubide hori baliatzeko ezarritako epean kontratuko beste alderdiari jakinarazita, bere erabakia justifikatzera behartu gabe eta inolako penalizaziorik izan gabe.

Erabat deusez izango dira kontsumitzaile eta erabiltzaileari utziesten-eskubidea baliatzeagatik penalizazioen bat ezartzen dioten klausulak.

2. Kontsumitzaileak kontratua utziesteko eskubidea izango du legez edo erregelamenduz aurreikusitako kasuetan, eta eskaintzan, sustapenean, publikizatean edo kontratuan bertan hala aitortzen zaionean.

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileari legez aitorturiko utziesten-eskubidea, lehenik, kasu bakoitzerako lege-xedapenetan ezartzen denak eraenduko du, eta, halakorik ezean, titulu honetan xedatutakoak.

69. artikulua. Utziesten-eskubideaz informatzeko betebeharra

1. Legeak kontsumitzaile eta erabiltzaileari utziesten-eskubidea aitortzen dionean, enpresaburu kontratugileak idatziz jakinarazi beharko dio kontratu-agirian, modu argi, ulergarri eta zehatzean, kontratua utziesteko eskubidea duela, eta zer betekizun eta ondorio dituen eskubide hori baliatzeak, jasotako ondasun edo zerbitzua itzultzeko moduak barne. Horretaz gainera, utziesten-agiri bat eman beharko dio, halakotzat garbi aurkeztua, bidali behar zaion pertsonaren izena eta helbidea eta dagokion kontratuaren eta dagokion kontratugileen datuak daramatzana.

2. Enpresaburuari dagokio aurreko zenbakian esandakoa betetzen dela frogatzea.

70. artikulua. Utziestena baliatzeko formaltasunak

Utziesten-eskubidea baliatzeko, ez da ezein formaltasun bete beharrik, eta aski izango da zuzenbidean onarturiko moduetako edozeinetan egiaztatzea. Baliozko moduan baliatutzat joko da, kasu guztietan, utziesten-agiria bidaltzean edo jasotako produktuak itzultzean.

Artículo 71. Plazo para el ejercicio del derecho de desistimiento

1. El consumidor y usuario dispondrá de un plazo mínimo de siete días hábiles para ejercer el derecho de desistimiento. Será la ley del lugar donde se ha entregado el bien objeto del contrato o donde hubiera de prestarse el servicio, la que determine los días que han de considerarse hábiles.

2. Siempre que el empresario haya cumplido con el deber de información y documentación establecido en el artículo 69.1, el plazo a que se refiere el apartado anterior se computará desde la recepción del bien objeto del contrato o desde la celebración de éste si el objeto del contrato fuera la prestación de servicios.

3. Si el empresario no hubiera cumplido con el deber de información y documentación sobre el derecho de desistimiento, el plazo para su ejercicio será de tres meses a contar desde que se entregó el bien contratado o se hubiera celebrado el contrato si el objeto de éste fuera la prestación de servicios. Si el deber de información y documentación se cumple durante el citado plazo de tres meses, el plazo legalmente previsto para el ejercicio del derecho de desistimiento empezará a contar desde ese momento.

4. Para determinar la observancia del plazo para desistir se tendrá en cuenta la fecha de expedición de la declaración de desistimiento.

Artículo 72. Prueba del ejercicio del derecho de desistimiento

Corresponde al consumidor y usuario probar que ha ejercitado su derecho de desistimiento conforme a lo dispuesto en este capítulo.

Artículo 73. Gastos vinculados al desistimiento

El ejercicio del derecho de desistimiento no implicará gasto alguno para el consumidor y usuario. A estos efectos se considerará lugar de cumplimiento el lugar donde el consumidor y usuario haya recibido la prestación.

Artículo 74. Consecuencias del ejercicio del derecho de desistimiento

1. Ejercido el derecho de desistimiento, las partes deberán restituirse recíprocamente las prestaciones de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 1.303 y 1.308 del Código Civil.

2. El consumidor y usuario no tendrá que rembolsar cantidad alguna por la disminución del valor del bien, que sea consecuencia de su uso conforme a lo pactado o a su naturaleza, o por el uso del servicio.

71. artikulua. Utziespen-eskubidea baliatzeko epea

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak zazpi egun balioduneko epea izango du, gutxienez, utziespen-eskubidea baliatzeko. Kontratupeko ondasuna eman den tokiaren edo zerbitzua eman behar den tokiko araudiaren arabera zehaztuko du zein egun hartu behar diren balioduntzat.

2. Enpresaburuak 69.1 artikuluan ezarritako informazio- eta dokumentazio-betebeharra bete badu, aurreko zenbakian aipaturiko epea kontratupeko ondasuna jasotzen denetik hasita kontatuko da, edo —kontratuaren helburua zerbitzuak ematea denean— kontratua burutzen denetik hasita.

3. Enpresaburuak ez badu bete utziespen-eskubideari buruzko informazio- eta dokumentazio-betebeharra, eskubide hori baliatzeko epea hiru hilabete izango da, kontratupeko ondasuna entregatu zenetik hasita edo —kontratuaren helburua zerbitzuak ematea denean— kontratua burutzen denetik hasita. Hiru hilabeteko epe horretan betetzen bada informazio- eta dokumentazio-betebeharra, une horretatik aurrera hasiko da utziespen-eskubidea baliatzeko legez ezarritako epea.

4. Utziesteko epea betetzen den edo ez erabakitzeko, utziespen-deklarazioa bidali zen data hartuko da kontuan.

72. artikulua. Utziespen-eskubidea baliatzearen froga

Kontsumitzaile eta erabiltzaileari dagokio utziespen-eskubidea kapitulu honetan xedatutakoaren arabera baliatu duela frogatzea.

73. artikulua. Utziespenari loturiko gastuak

Utziespen-eskubidea baliatzeak ez dio inolako gasturik ekarriko kontsumitzaile eta erabiltzaileari. Ondorio horietarako, kontsumitzaile eta erabiltzaileak prestazioa jaso duen tokia hartuko da betetze-tokitzat.

74. artikulua. Utziespen-eskubidea baliatzearen ondorioak

1. Utziespen-eskubidea baliatutakoan, alderdiek elkarri itzuli beharko dizkiote prestazioak, Kode Zibilaren 1.303 eta 1.308 artikuluetan xedaturikoaren arabera.

2. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak ez du batere dirurik itzuli beharko ondasunaren balioa gutxitu delako, baldin eta hitzartutakoaren araberrako erabileraren ondorioz edo ondasunaren izaeraren ondorioz gertatu bada hori, edo zerbitzua erabili duelako.

3. El consumidor y usuario tendrá derecho al reembolso de los gastos necesarios y útiles que hubiera realizado en el bien.

Artículo 75. Imposibilidad de devolver la prestación por parte del consumidor y usuario

1. La imposibilidad de devolver la prestación objeto del contrato por parte del consumidor y usuario por pérdida, destrucción u otra causa no privarán a éste de la posibilidad de ejercer el derecho de desistimiento.

En estos casos, cuando la imposibilidad de devolución le sea imputable, el consumidor y usuario responderá del valor de mercado que hubiera tenido la prestación en el momento del ejercicio del derecho de desistimiento, salvo que dicho valor fuera superior al precio de adquisición, en cuyo caso responderá de éste.

2. Cuando el empresario hubiera incumplido el deber de información y documentación sobre el derecho de desistimiento, la imposibilidad de devolución sólo será imputable al consumidor y usuario cuando éste hubiera omitido la diligencia que le es exigible en sus propios asuntos.

Artículo 76. Devolución de sumas percibidas por el empresario

Cuando el consumidor y usuario haya ejercido el derecho de desistimiento, el empresario estará obligado a devolver las sumas abonadas por el consumidor y usuario sin retención de gastos. La devolución de estas sumas deberá efectuarse lo antes posible y, en cualquier caso, en el plazo máximo de 30 días desde el desistimiento.

Transcurrido dicho plazo sin que el consumidor y usuario haya recuperado la suma adeudada, tendrá derecho a reclamarla duplicada, sin perjuicio de que además se le indemnicen los daños y perjuicios que se le hayan causado en lo que excedan de dicha cantidad.

Corresponde al empresario la carga de la prueba sobre el cumplimiento del plazo.

Artículo 77. Desistimiento de un contrato vinculado a financiación al consumidor y usuario

Cuando en el contrato para el que se ejercite el derecho de desistimiento el precio a abonar por el consumidor y usuario haya sido total o parcialmente financiado mediante un crédito concedido por el empresario contratante o por

3. Ondasunean egin dituen gastu beharrezko eta baliagarriak itzul dakizkion eskubidea izango du kontsumitzaile eta erabiltzaileak.

75. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak prestazioa itzuli ezina

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak ez da utziespen-eskubidea baliatzeko aukerarik gabe geldituko nahiz eta kontratupeko prestazioa itzuli ezinik gertatu, galdu duelako, desegin delako edo bestelako arrazoiren batengatik.

Kasu horietan, itzuli ezina kontsumitzaile eta erabiltzaileari egozteko modukoa denean, prestazioak utziespen-eskubidea baliatzeko unean izango lukeen merkatu-balioaz erantzungo du kontsumitzaile eta erabiltzaileak; balio hori erosketa-balioa baino handiagoa bada, berriz, erosketa-balioaz erantzungo du.

2. Enpresaburuak utziespen-eskubideari buruzko informazio- eta dokumentazio-betebeharra bete ez duenean, itzuli ezina kontsumitzaile eta erabiltzaileari egozteko arrazoi bakarra bere gauzetarako eskatu behar zaion ardurarekin ez jokatu izana izango da.

76. artikulua. Enpresaburuak jasotako kopuruak itzuli ezina

Kontsumitzaile eta erabiltzaileak utziespen-eskubidea baliatu duenean, enpresaburua beharturik egongo da kontsumitzaile eta erabiltzaileak ordainduriko kopuruak itzultzera, gastuen atxikipenik egin gabe. Diru-kopuru horiek lehenbailehen itzuli beharko dira, eta, kasu guztietan, utziespenaren ondorengo 30 egunen epean.

Epe hori igarota kontsumitzaile eta erabiltzaileak ez badu zor dioten kopurua berreskuratu, hura halako bi eskatzeko eskubidea izango du; gainera, sortu zaizkion kalte eta galeren kalte-ordaina ere eman beharko zaio, aipatutako kopurutik gorako partean.

Enpresaburuari dagokio epea betetzeari buruzko frogaren karga.

77. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzailearen finantzaketari loturiko kontratu bat utziestea

Utziespen-eskubidea baliatu den kontratu baterako kontsumitzaile eta erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa guztiz edo partez kreditu bidez finantzatu bada, kreditu hori enpresaburu kontratugileak emana izan edo hirugarren

parte de un tercero, previo acuerdo de éste con el empresario contratante, el ejercicio del derecho de desistimiento implicará al tiempo la resolución del crédito sin penalización alguna para el consumidor y usuario.

Artículo 78. Acciones de nulidad o resolución

La falta de ejercicio del derecho de desistimiento en el plazo fijado no será obstáculo para el posterior ejercicio de las acciones de nulidad o resolución del contrato cuando procedan conforme a derecho.

Artículo 79. Derecho contractual de desistimiento

A falta de previsiones específicas en la oferta, promoción, publicidad o en el propio contrato el derecho de desistimiento reconocido contractualmente, éste se ajustará a lo previsto en este título.

El consumidor y usuario que ejercite el derecho de desistimiento contractualmente reconocido no tendrá en ningún caso obligación de indemnizar por el desgaste o deterioro del bien o por el uso del servicio debido exclusivamente a su prueba para tomar una decisión sobre su adquisición definitiva.

En ningún caso podrá el empresario exigir anticipo de pago o prestación de garantías, incluso la aceptación de efectos que garanticen un eventual resarcimiento en su favor para el caso de que se ejercite el derecho de desistimiento.

TÍTULO II

CONDICIONES GENERALES Y CLÁUSULAS ABUSIVAS

CAPITULO I

Cláusulas no negociadas individualmente

Artículo 80. Requisitos de las cláusulas no negociadas individualmente

1. En los contratos con consumidores y usuarios que utilicen cláusulas no negociadas individualmente, incluidos los que promuevan las Administraciones públicas y las entidades y empresas de ellas dependientes, aquéllas deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Concreción, claridad y sencillez en la redacción, con posibilidad de comprensión directa, sin reenvíos a textos o documentos que no se faciliten previa

batek aurrez enpresaburu kontratugilearekin ados jarririk emana izan, utziespen-eskubidea baliatzeak aldi berean kreditua desegitea ekarriko du, kontsumitzaile eta erabiltzailearentzako inolako penalizaziorik izan gabe.

78. artikulua. Deuseztasun- edo desegite-akzioak

Ezarritako epean utziespen-eskubidea ez baliatzea ez da eragozpen izango kontratuaren deuseztasun- edo desegite-akzioa baliatzeko, zuzenbidearen araberak hala dagokionean.

79. artikulua. Utziesteko kontratu-eskubidea

Eskaintzan, sustapenean, publizitatean edo kontratuan bertan berariazko aurreikuspenik egin ez bada kontratuz aitorturiko utziespen-eskubideari buruz, titulu honetan azaldutakoaren arabera izango da eskubide hori.

Kontratuz aitorturiko utziespen-eskubidea baliatzen duen kontsumitzaile eta erabiltzailea ez da kalte-ordainik ematera beharturik egongo, ezein kasutan, behin betiko erostea erabaki aurretik probatzean ondasuna higatu edo hondatu delako edo zerbitzua erabili delako.

Ezein kasutan ezin eskatuko du enpresaburuak ordain-aurrerakinik edo berme-prestaziorik emateko, ez eta utziespen-eskubidea baliatzen den kasurako beraren aldeko balizko ordain bat bermatzeko efektuak onartzeko ere.

II. TITULUA

BALDINTZA OROKORRAK ETA ABUSUZKO KLAUSULAK

I. KAPITULUA

Banan-banan negoziatu gabeko klausulak

80. artikulua. Banan-banan negoziatu gabeko klausulen betekizunak

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko kontratuek banan-banan negoziatu gabeko klausulak badituzte, berdin administrazio publikoek eta haien mendeko entitate eta enpresek sustaturiko kontratuen kasuan ere, betekizun hauek bete beharko dituzte klausulek:

a) Zehatz, argi eta erraz idatzita egotea, zuzenean ulertzeko moduan, kontratua itxi aurretik edo ixteko unean eman ez den beste ezein testu edo agiritaraz

o simultáneamente a la conclusión del contrato, y a los que, en todo caso, deberá hacerse referencia expresa en el documento contractual.

b) Accesibilidad y legibilidad, de forma que permita al consumidor y usuario el conocimiento previo a la celebración del contrato sobre su existencia y contenido.

Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 63.1, en los casos de contratación telefónica o electrónica con condiciones generales será necesario que conste, en los términos que reglamentariamente se establezcan, la aceptación de todas y cada una de las cláusulas del contrato, sin necesidad de firma convencional. En este supuesto, se enviará inmediatamente al consumidor y usuario justificación de la contratación efectuada por escrito o, salvo oposición expresa del consumidor y usuario, en cualquier soporte de naturaleza duradera adecuado a la técnica de comunicación a distancia utilizada, donde constarán todos los términos de la misma. La carga de la prueba del cumplimiento de esta obligación corresponde al predisponente.

El cómputo del plazo para el ejercicio del derecho de desistimiento del consumidor y usuario en la contratación telefónica o electrónica con condiciones generales, en los supuestos en que reglamentariamente esté previsto, se regirá por lo dispuesto en el artículo 71.

c) Buena fe y justo equilibrio entre los derechos y obligaciones de las partes, lo que en todo caso excluye la utilización de cláusulas abusivas.

2. Cuando se ejerciten acciones individuales, en caso de duda sobre el sentido de una cláusula prevalecerá la interpretación más favorable al consumidor.

Artículo 81. Aprobación e información

1. Las cláusulas, condiciones o estipulaciones que utilicen las empresas públicas o concesionarias de servicios públicos, estarán sometidas a la aprobación y control de las Administraciones públicas competentes, cuando así se disponga como requisito de validez y con independencia de la consulta al Consejo de Consumidores y Usuarios prevista en esta u otras leyes. Todo ello sin perjuicio de su sometimiento a las disposiciones generales de esta norma.

2. Los Notarios y los Registradores de la Propiedad y Mercantiles, en el ejercicio profesional de sus respectivas funciones públicas, informarán a los consumidores y usuarios en los asuntos propios de su especialidad y competencia.

jo beharrik izan gabe; halako testu edo agiririk baldin bada, edozein kasutan, espresuki aipatu beharko da kontratu-agirian.

b) Eskuragarri eta irakurgarriak izatea, kontsumitzaile eta erabiltzaileak aukera izan dezan, kontratua burutu aurretik, halako klausulak badirela eta zer dioten jakiteko.

Hargatik eragotzi gabe arau honen 63.1 artikuluan xedaturikoa, baldintza orokorrak dituzten telefonozko kontratuetan edo kontratu elektronikoetan beharrezko izango da kontratuaren baldintza guztiak banan-banan onartzen direla adieraztea, erregelamenduz ezarritako moduan, ohiko sinaduraren beharrik gabe. Halako kasuetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileari berehala bidaliko zaio egindako kontratuaren termino guztiak jasoko dituen egiaztagiria, idatziz edo, kontsumitzaile eta erabiltzaileak espresuki kontrakoa esan ezean, erabilitako urrunetiko komunikazio-bidearentzat egokia den edozein euskarri iraunkorretan. Aurre-ezartzaileari dagokio betebeharrak hori betetzen dela frogatzearen karga.

Baldintza orokorrak dituzten telefonozko kontratuetan edo kontratu elektronikoetan kontsumitzaile eta erabiltzaileak utziespen-eskubidea baliatzeko epea, eskubide hori erregelamenduz onartua dagoen kasuetan, 71. artikuluan xedaturikoaren arabera izango da.

c) Fede ona eta alderdien eskubide eta betebeharren artean oreka justua izatea; horrek, edozein kasutan, abusuzko klausulak erabiltzea galarazten du.

2. Akzio indibidualak baliatzen direnean, klausula baten zentzuari dagokionez dudarik izanez gero, kontsumitzaileari mesedegarrien zaion interpretazioa nagusituko da.

81. artikulua. Onespena eta informazioa

1. Enpresa publikoek edo zerbitzu publikoen emakidadunek erabilitako klausula, baldintza edo estipulazioak administrazio publiko eskudunek onartu eta kontrolatu beharko dituzte, baliozko izateko betekizun hori eskatzen denean, hargatik eragotzi gabe Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseiluari kontsulta egitea, arau honetan edo beste batzuetan aurreikusitakoarekin ados. Horretaz guztiaz gainera, arau honen xedapen orokorren mende egongo dira aipaturiko klausula, baldintza eta estipulazioak.

2. Notarioek, merkataritza-artekariak eta jabetza- eta merkataritza-erregistratzaileak, beren funtzio publikoko jardun profesionalean, informazioa emango diete kontsumitzaileei beren espezialitateko eta eskumeneko gaiak buruz.

CAPÍTULO II

Cláusulas abusivas

Artículo 82. Concepto de cláusulas abusivas

1. Se considerarán cláusulas abusivas todas aquellas estipulaciones no negociadas individualmente y todas aquéllas prácticas no consentidas expresamente que, en contra de las exigencias de la buena fe causen, en perjuicio del consumidor y usuario, un desequilibrio importante de los derechos y obligaciones de las partes que se deriven del contrato.

2. El hecho de que ciertos elementos de una cláusula o que una cláusula aislada se hayan negociado individualmente no excluirá la aplicación de las normas sobre cláusulas abusivas al resto del contrato.

El empresario que afirme que una determinada cláusula ha sido negociada individualmente, asumirá la carga de la prueba.

3. El carácter abusivo de una cláusula se apreciará teniendo en cuenta la naturaleza de los bienes o servicios objeto del contrato y considerando todas las circunstancias concurrentes en el momento de su celebración, así como todas las demás cláusulas del contrato o de otro del que éste dependa.

4. No obstante lo previsto en los apartados precedentes, en todo caso son abusivas las cláusulas que, conforme a lo dispuesto en los artículos 85 a 90, ambos inclusive:

- a) vinculen el contrato a la voluntad del empresario,
- b) limiten los derechos del consumidor y usuario,
- c) determinen la falta de reciprocidad en el contrato,
- d) impongan al consumidor y usuario garantías desproporcionadas o le impongan indebidamente la carga de la prueba,
- e) resulten desproporcionadas en relación con el perfeccionamiento y ejecución del contrato, o
- f) contravengan las reglas sobre competencia y derecho aplicable.

Artículo 83. Nulidad de las cláusulas abusivas e integración del contrato

1. Las cláusulas abusivas serán nulas de pleno derecho y se tendrán por no puestas.

II. KAPITULUA

Abusuzko klausulak

82. artikulua. Abusuzko klausularen kontzeptua

1. Abusuzko klausulatzat joko dira: banan-banan negoziatu ez diren estipulazio guztiak eta espresuki onartu gabeko jardute guztiak, baldin eta, fede onak eskatzen duenaren kontra, desoreka handia sortzen badute kontratuak alderdiei dakarzkien eskubide eta betebeharren artean, kontsumitzaile eta erabiltzailearen kaltetan.

2. Klausula baten elementu batzuk edo klausula bat bereiz negoziatu izanak ez du eragotziko abusuzko klausulei buruzko arauak kontratuaren gaineko parteari aplikatzea.

Klausula bat bereiz negoziatu dela baieztatzen duen enpresaburuak bere gain hartuko du hori frogatzearen karga.

3. Klausula bat abusuzkotzat jotzeko, kontuan hartuko da kontratuaren objektu diren ondasun edo zerbitzuen izaera, eta orobat begiratuko zaie kontratua egin zen uneko inguruabar guztiei eta kontratuaren klausula guztiei edo, kontratua beste baten mendeko bada, kontratu nagusiarenei.

4. Aurreko zenbakietan xedaturikoa gorabehera, klausulak abusuzkoak dira, kasu guztietan, baldin eta, 85.etik 90.era bitarteko artikuluetan xedaturikoaren arabera (biak barne):

- a) kontratua enpresaburuaren borondateari lotzen badiote,
- b) kontsumitzaile eta erabiltzailearen eskubideak mugatzen badituzte,
- c) kontratuan elkarrekikotasunik ez izatea badakarte,
- d) kontsumitzaile eta erabiltzaileari neurritz gaineko bermeak ezartzen badizkiote edo ez dagokionean frogaren karga ezartzen badiote,
- e) kontratua hobetzeari eta gauzatzeari dagokionez neurritz gainekoak bada, edo
- f) lehiari eta aplikatzekoa den zuzenbideari buruzko erregelen kontra badoaz.

83. artikulua. Abusuzko klausulen deuseztasuna eta kontratua osatzea

1. Abusuzko klausulak erabat deusez izango dira, eta jarri gabetzat hartuko dira.

2. La parte del contrato afectada por la nulidad se integrará con arreglo a lo dispuesto por el artículo 1.258 del Código Civil y al principio de buena fe objetiva.

A estos efectos, el Juez que declare la nulidad de dichas cláusulas integrará el contrato y dispondrá de facultades moderadoras respecto de los derechos y obligaciones de las partes, cuando subsista el contrato, y de las consecuencias de su ineficacia en caso de perjuicio apreciable para el consumidor y usuario.

Sólo cuando las cláusulas subsistentes determinen una situación no equitativa en la posición de las partes que no pueda ser subsanada podrá el Juez declarar la ineficacia del contrato.

Artículo 84. Autorización e inscripción de cláusulas declaradas abusivas

Los Notarios y los Registradores de la Propiedad y Mercantiles, en el ejercicio profesional de sus respectivas funciones públicas, no autorizarán ni inscribirán aquellos contratos o negocios jurídicos en los que se pretenda la inclusión de cláusulas declaradas nulas por abusivas en sentencia inscrita en el Registro de Condiciones Generales de la Contratación.

Artículo 85. Cláusulas abusivas por vincular el contrato a la voluntad del empresario

Las cláusulas que vinculen cualquier aspecto del contrato a la voluntad del empresario serán abusivas y, en todo caso, las siguientes:

1. Las cláusulas que reserven al empresario que contrata con el consumidor y usuario un plazo excesivamente largo o insuficientemente determinado para aceptar o rechazar una oferta contractual o satisfacer la prestación debida.

2. Las cláusulas que prevean la prórroga automática de un contrato de duración determinada si el consumidor y usuario no se manifiesta en contra, fijando una fecha límite que no permita de manera efectiva al consumidor y usuario manifestar su voluntad de no prorrogarlo.

3. Las cláusulas que reserven a favor del empresario facultades de interpretación o modificación unilateral del contrato, salvo, en este último caso, que concurran motivos válidos especificados en el contrato.

En los contratos referidos a servicios financieros lo establecido en el párrafo anterior se entenderá sin perjuicio de las cláusulas por las que el empresario se reserve la facultad de modificar sin previo aviso el tipo de interés adeudado por el consumidor o al consumidor, así como el importe de otros gastos relaciona-

2. Deuseztzat jotako kontratu zatia Kode Zibilaren 1258. artikulua xedaturikoaren eta fede on objektiboaren printzipioaren arabera osatuko da.

Horretarako, klausulak deusez deklaratu dituen epaileak osatuko du kontratua, eta moderatze-ahalmena izango du alderdien eskubide eta betebeharren gainean, kontratuak iraun dirauenean, eta orobat klausula horien eraginkortasun ezaren gainean, kontsumitzaile eta erabiltzailearentzat kalte nabaria den kasuan.

Dirauten klausulek alderdien artean ekitatezkoa ez den eta ezin zuzendu den egoera bat eragiten dutenean baino ezin deklaratu du epaileak kontratuaren eraginkortasunik eza.

84. artikulua. Abusuzkotzat jotako klausulak baimentzea eta inskribatzea

Notarioek eta jabetza- eta merkataritza-erregistratzaileek, beren funtzio publikoko jardun profesionalean, ez dute kontratu edo negozio juridikorik eskuetsiko, ez inskribatuko, baldin eta haietan sartu nahi den klausularen bat abusuzkoa izateagatik deusez deklaratu badu Kontratu Baldintza Orokorren Erregistroan inskribaturiko eparen batek.

85. artikulua. Kontratua enpresaburuaren borondateari lotzeagatik abusuzko diren klausulak

Abusuzkoak dira kontratuaren edozein alderdi enpresaburuaren borondateari lotzen dioten klausulak; besteak beste, hauek:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzailearekin kontratua egiten duen enpresaburuari kontratu-eskaintza onartzeko edo uzteko edo eman beharreko prestazioa emateko epe luzeegia edo aski zehaztu gabea erreserbatzen dioten klausulak.

2. Kontsumitzaile eta erabiltzailea kontra agertu ezean iraupen jakineko kontratu bat automatikoki luzatzeko aukera aurreikusten duten klausulak, ez luzatzeko borondatea eraginkortasunez adieraztea eragozten duen data-muga bat ezartzen dutenak.

3. Enpresaburuari kontratua bere aldetik interpretatzeko edo aldatzeko ahalmena erreserbatzen dioten klausulak; betiere, aldatzearen kasuan, kontratuan zehazturiko arrazoi baliozkorik ez badago.

Finantza-zerbitzuei buruzko kontratuetan, aurreko paragrafoan ezarritakoak ez du eragozten enpresaburuak beretzako ahalmena erreserbatzea kontsumitzaileak zor duen edo kontsumitzaileari zor zaion interes-tasa aurre-abisurik gabe aldatzeko, eta orobat finantza-zerbitzuekin zerikusia duten beste gastu ba-

dos con los servicios financieros, cuando aquellos se encuentren adaptados a un índice, siempre que se trate de índices legales y se describa el modo de variación del tipo, o en otros casos de razón válida, a condición de que el empresario esté obligado a informar de ello en el más breve plazo a los otros contratantes y éstos puedan resolver inmediatamente el contrato sin penalización alguna.

Igualmente podrán modificarse unilateralmente las condiciones de un contrato de servicios financieros de duración indeterminada por los motivos válidos expresados en él, siempre que el empresario esté obligado a informar al consumidor y usuario con antelación razonable y éste tenga la facultad de resolver el contrato, o, en su caso, rescindir unilateralmente, sin previo aviso en el supuesto de razón válida, a condición de que el empresario informe de ello inmediatamente a los demás contratantes.

4. Las cláusulas que autoricen al empresario a resolver anticipadamente un contrato de duración determinada, si al consumidor y usuario no se le reconoce la misma facultad, o las que le faculten a resolver los contratos de duración indefinida en un plazo desproporcionadamente breve o sin previa notificación con antelación razonable.

Lo previsto en este párrafo no afecta a las cláusulas en las que se prevea la resolución del contrato por incumplimiento o por motivos graves, ajenos a la voluntad de las partes, que alteren las circunstancias que motivaron la celebración del contrato.

5. Las cláusulas que determinen la vinculación incondicionada del consumidor y usuario al contrato aún cuando el empresario no hubiera cumplido con sus obligaciones.

6. Las cláusulas que supongan la imposición de una indemnización desproporcionadamente alta, al consumidor y usuario que no cumpla sus obligaciones.

7. Las cláusulas que supongan la supeditación a una condición cuya realización dependa únicamente de la voluntad del empresario para el cumplimiento de las prestaciones, cuando al consumidor y usuario se le haya exigido un compromiso firme.

8. Las cláusulas que supongan la consignación de fechas de entrega meramente indicativas condicionadas a la voluntad del empresario.

9. Las cláusulas que determinen la exclusión o limitación de la obligación del empresario de respetar los acuerdos o compromisos adquiridos por sus mandatarios o representantes o supeditar sus compromisos al cumplimiento de determinadas formalidades.

tzuen zenbatekoa aldatzeko, indize bati egokituak daudenean, betiere indizeak legezkoak badira eta tasa aldatzeko modua deskribatzen bada, edo beste arrazoi baliozkorik bada. Enpresaburuak, nahitaez, horren berri eman beharko die lehenbailehen gainerako kontratugileei, aukera izan dezaten kontratua berehala desegiteko, penalizaziorik izan gabe.

Orobat aldatu ahal izango dira alderdi baten erabakiz finantza-zerbitzuei buruzko iraupen jakinik gabeko kontratu baten baldintzak, kontratuan bertan adierazitako baliozko arrazoiengatik, betiere enpresaburua behartzen bada arrazoizko aurrerapenez kontsumitzaile eta erabiltzailea informatzera eta azken horrek ahalmena baldin badu kontratua desegiteko edo, hala badagokio, bere aldetik kontratua hutsaltzeko, arrazoi baliozkorik izanez gero aurre-abisurik eman gabe, enpresaburuak gainerako kontratugileei berehala horren berri emateko baldintzarekin.

4. Enpresaburuari iraupen jakineko kontratu bat epea baino lehen desegiteko ahalmena ematen dioten klausulak, kontsumitzaile eta erabiltzaileari ahalmena bera aitortzen ez bazaio, edo iraupen zehatzik gabeko kontratu bat epe neurrigabe labur batean edo arrazoizko aurrerapenarekin jakinarazi gabe desegiteko ahalmena ematen dioten klausulak.

Paragrafo honetan xedaturikoak ez die eragiten ez-betetzeagatik kontratua desegitea aurreikusten duten klausulei, ez alderdien borondatearekin zerikusirik ez duten eta kontratua egin zeneko inguruabarrak aldatzen dituzten arrazoi larriengatik kontratua desegitea aurreikusten duten klausulei.

5. Enpresaburuak bere betebeharrak bete ez dituen kasuan ere kontsumitzailea kontratuari baldintzarik gabe loturik uzten duten klausulak.

6. Bere betebeharrak betetzen ez dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileari kalte-ordain neurrigabe handia ezartzen dizkieten klausulak.

7. Kontsumitzaile eta erabiltzaileari konpromiso irmoa eskatu zaiolarik, prestazioak betetzea enpresaburuaren borondatearen baitan baino ez dagoen baldintza baten mende uzten duten klausulak.

8. Erakusgarri huts diren eta enpresaburuaren borondatearen baitan gelditzen diren entrega-epeak jartzen dituzten klausulak.

9. Enpresaburua bere mandatari edo ordezkariak harturiko akordio edo konpromisoak errespetatuzetik guztiz edo partez libre uzten duten klausulak, edo haien konpromisoak formaltasun jakin batzuk betetzearen baitan uzten dituztenak.

10. Las cláusulas que prevean la estipulación del precio en el momento de la entrega del bien o servicio o las que otorguen al empresario la facultad de aumentar el precio final sobre el convenido, sin que en ambos casos existan razones objetivas y sin reconocer al consumidor y usuario el derecho a resolver el contrato si el precio final resulta muy superior al inicialmente estipulado.

Lo establecido en el párrafo anterior se entenderá sin perjuicio de la adaptación de precios a un índice, siempre que tales índices sean legales y que en el contrato se describa explícitamente el modo de variación del precio.

11. Las cláusulas que supongan la concesión al empresario del derecho a determinar si el bien o servicio se ajusta a lo estipulado en el contrato.

Artículo 86. Cláusulas abusivas por limitar los derechos básicos del consumidor y usuario

En cualquier caso serán abusivas las cláusulas que limiten o priven al consumidor y usuario de los derechos reconocidos por normas dispositivas o imperativas y, en particular, aquellas estipulaciones que prevean:

1. La exclusión o limitación de forma inadecuada de los derechos legales del consumidor y usuario por incumplimiento total o parcial o cumplimiento defectuoso del empresario.

En particular las cláusulas que modifiquen, en perjuicio del consumidor y usuario, las normas legales sobre conformidad con el contrato de los bienes o servicios puestos a su disposición o limiten el derecho del consumidor y usuario a la indemnización por los daños y perjuicios ocasionados por dicha falta de conformidad.

2. La exclusión o limitación de la responsabilidad del empresario en el cumplimiento del contrato, por los daños o por la muerte o por las lesiones causadas al consumidor y usuario por una acción u omisión de aquél.

3. La liberación de responsabilidad del empresario por cesión del contrato a tercero, sin consentimiento del deudor, si puede engendrar merma de las garantías de éste.

4. La privación o restricción al consumidor y usuario de las facultades de compensación de créditos, retención o consignación.

5. La limitación o exclusión de la facultad del consumidor y usuario de resolver el contrato por incumplimiento del empresario.

10. Ondasun edo zerbitzuari prezioa entregatzeko unean bertan jartzeko aukera aurreikusten duten klausulak, edo enpresaburuari azken prezioa hitzarturikoaren gainerik jartzeko aukera ematen diotenak, ez kasu batean ez bestean arrazoi objektiborik izan gabe eta kontsumitzaileari eskubidea aitortu gabe azken prezioa hasieran jarritakoa baino askoz handiagoa bada kontratua hutsaltzeko.

Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez du eragozten prezioak indize bati egokitzea, indizeak legezkoak badira eta prezioa aldatzeko modua argi eta garbi deskribatzen bada kontratuan.

11. Enpresaburuari ondasun edo zerbitzua kontratuan hitzarturikoaren arabera den erabakitzeko eskubidea ematea dakarten klausulak.

86. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzailearen oinarritzko eskubideak mugatzeagatik abusuzko diren klausulak

Kasu guztietan, abusuzkoak izango dira kontsumitzaile eta erabiltzaileei xedapenezko edo aginduzko arauak aitorturiko eskubideak mugatzen edo kentzen dizkieten klausulak, eta, zehazki, honelakoak aurreikusten dituztenak:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileari bere legezko eskubideak kentzea edo murriztea, modu desegokian, enpresaburuak bere betebeharrak guztiz edo partez bete ez dituelako edo oker bete dituelako.

Besteak beste, kontsumitzaile eta erabiltzailearen eskura jarritako ondasun edo zerbitzuak kontratuaren arabera izateari buruzko legezko arauak kontsumitzaile eta erabiltzailearen kaltetan aldatzen dituzten klausulak, edo araberrako ez izatearen ondoriozko kalte-galerengatik dagokion kalte-ordainerako eskubidea mugatzen dutenak.

2. Enpresaburuak kontratua betetzeari dagokionez duen erantzukizuna kentzea edo mugatzea, haren egite edo ez-egite batengatik kontsumitzaile eta erabiltzaileari kalteak, heriotza edo lesioak eragin zaizkionean.

3. Enpresaburuak erantzukizunetik libre uztea zordunaren baimenik gabe kontratua hirugarren bati laga dion kasuan, horrek kontratuaren bermeak gutxitzea ekar badezake.

4. Kontsumitzaile eta erabiltzaileari kreditu-konpentsaziorako, atxikipenerako edo kontsignaziorako ahalmena kentzea edo murriztea.

5. Enpresaburuak kontratua ez betetzeagatik kontsumitzaile eta erabiltzaileak hura desegiteko duen ahalmena mugatzea edo kentzea.

6. La imposición de renunciaciones a la entrega de documento acreditativo de la operación.

7. La imposición de cualquier otra renuncia o limitación de los derechos del consumidor y usuario.

Artículo 87. Cláusulas abusivas por falta de reciprocidad

Son abusivas las cláusulas que determinen la falta de reciprocidad en el contrato, contraria a la buena fe, en perjuicio del consumidor y usuario y, en particular:

1. La imposición de obligaciones al consumidor y usuario para el cumplimiento de todos sus deberes y contraprestaciones, aun cuando el empresario no hubiere cumplido los suyos.

2. La retención de cantidades abonadas por el consumidor y usuario por renuncia, sin contemplar la indemnización por una cantidad equivalente si renuncia el empresario.

3. La autorización al empresario para resolver el contrato discrecionalmente, si al consumidor y usuario no se le reconoce la misma facultad.

4. La posibilidad de que el empresario se quede con las cantidades abonadas en concepto de prestaciones aún no efectuadas cuando sea él mismo quien resuelva el contrato.

5. Las estipulaciones que prevean el redondeo al alza en el tiempo consumido o en el precio de los bienes o servicios o cualquier otra estipulación que prevea el cobro por productos o servicios no efectivamente usados o consumidos de manera efectiva.

En aquellos sectores en los que el inicio del servicio conlleve indisolublemente un coste para las empresas o los profesionales no repercutido en el precio, no se considerará abusiva la facturación por separado de tales costes, cuando se adecuen al servicio efectivamente prestado.

6. Las estipulaciones que impongan obstáculos onerosos o desproporcionados para el ejercicio de los derechos reconocidos al consumidor y usuario en el contrato, en particular en los contratos de prestación de servicios o suministro de productos de tracto sucesivo o continuado, la imposición de plazos de duración excesiva, la renuncia o el establecimiento de limitaciones que excluyan u obstaculicen el derecho del consumidor y usuario a poner fin a estos contratos, así como la obstaculización al ejercicio de este derecho a través del procedi-

6. Eragiketaren egiaztagiria jasotzeari uko egitera behartzea.

7. Kontsumitzaile eta erabiltzailearen eskubideei ezarritako beste edozein uko-egite edo muga.

87. artikulua. Elkarrekikotasunik ezagatik abusuzko diren klausulak

Abusuzkoak dira fede onaren kontra eta kontsumitzaile eta erabiltzailearen kaltetan kontratuak elkarrekikotasunik ez izatea dakarten klausulak, eta, bereziki:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzailea bere betebeharrak eta kontraprestazio guztiak betetzera behartzea, enpresaburuak bereak bete ez dituen kasuan ere.

2. Uko-egite kasurako kontsumitzaile eta erabiltzaileak ordaindutako kopururen bat axikitzea, hein bereko kalte-ordaina aurreikusi gabe enpresaburuak uko egiten duenerako.

3. Enpresaburuari bere irizpidez kontratua desegiteko ahalmena ematea, kontsumitzaileari ahalmen bera aitortzen ez bazaio.

4. Artean eman gabeko prestazioengatik ordainduriko zenbatekoei eusteko aukera ematea enpresaburuari, kontratua berak desegin duen kasuan.

5. Kontsumituriko denbora edo produktu edo zerbitzuen prezioa gorantz biribiltzea aurreikusten duten estipulazioak, edo egiazki erabili edo kontsumitu ez diren ondasun edo zerbitzuak kobratzea aurreikusten duen beste edozein estipulazio.

Zerbitzua hasteak enpresentzat edo profesionalentzat prezioan sartu gabeko kostu bereizezin bat daraman sektoreetan, ez da abusuzkotzat hartuko kostu horiek aparte fakturatzea, egiazki emandako zerbitzuaren araberakoak badira.

6. Kontsumitzaile eta erabiltzaileari kontratuan aitorturiko eskubideak baliatzeko oztopo astun edo neurritz kanpokoak ezartzen dituzten estipulazioak, bereziki segidako edo jarraipenezko traktuko zerbitzuak emateko edo produktua hornitzeko kontratuetan; epe luzeegiak ezartzea; kontsumitzaile eta erabiltzaileak kontratua amaitzeko duen eskubideari uko egin beharra edo hura baztertzen edo oztopatzen duten mugapenak ezartzea; eta orobat eskubide hori baliatzeko adosturiko prozedura oztopatzea, hala nola honako hauek au-

miento pactado, cual es el caso de las que prevean la imposición de formalidades distintas de las previstas para contratar o la pérdida de las cantidades abonadas por adelantado, el abono de cantidades por servicios no prestados efectivamente, la atribución al empresario de la facultad de ejecución unilateral de las cláusulas penales que se hubieran fijado contractualmente o la fijación de indemnizaciones que no se correspondan con los daños efectivamente causados.

Artículo 88. Cláusulas abusivas sobre garantías

En todo caso se consideraran abusivas las cláusulas que supongan:

1. La imposición de garantías desproporcionadas al riesgo asumido.

Se presumirá que no existe desproporción en los contratos de financiación o de garantías pactadas por entidades financieras que se ajusten a su normativa específica.

2. La imposición de la carga de la prueba en perjuicio del consumidor y usuario en los casos en que debería corresponder a la otra parte contratante.

3. La imposición al consumidor de la carga de la prueba sobre el incumplimiento, total o parcial, del empresario proveedor a distancia de servicios financieros de las obligaciones impuestas por la normativa específica sobre la materia.

Artículo 89. Cláusulas abusivas que afectan al perfeccionamiento y ejecución del contrato

En todo caso tienen la consideración de cláusulas abusivas:

1. Las declaraciones de recepción o conformidad sobre hechos ficticios, y las declaraciones de adhesión del consumidor y usuario a cláusulas de las cuales no ha tenido la oportunidad de tomar conocimiento real antes de la celebración del contrato.

2. La transmisión al consumidor y usuario de las consecuencias económicas de errores administrativos o de gestión que no le sean imputables.

3. La imposición al consumidor de los gastos de documentación y tramitación que por ley corresponda al empresario. En particular, en la compraventa de viviendas:

a) La estipulación de que el consumidor ha de cargar con los gastos derivados de la preparación de la titulación que por su naturaleza correspondan al empresario (obra nueva, propiedad horizontal, hipotecas para financiar su construcción o su división y cancelación).

rreikusten dituzten estipulazioak: kontratatzeko aurreikusirikoez besteko formaltasunak ezartzea edo aurrez ordainduriko zenbatekoak galtzea, egiazki eman ez diren zerbitzuengatik diru kopuru bat ordaintzea, enpresaburuari ematea kontratuz finkaturiko zehapen-klausulak bere aldetik exekutatzeko ahalmena, edo egiazki eragin diren kalteei ez dagozkien kalte-ordainak finkatzea.

88. artikulua. Bermeen inguruko abusuzko klausulak

Kasu guztietan, abusuzkotzat joko dira honelakoak dakartzaten klausulak:

1. Harturiko arriskuarekiko neurrigabeak diren bermeak ezartzea.

Neurrigabetasunik ez dagoela joko da finantza-entitateek hitzarturiko finantzaketa- edo berme-kontratuen kasuan, haien berariazko araudiaren araberakoak direnean.

2. Kontsumitzaile eta erabiltzailearen gain ezartzea frogaren karga, kontratuko beste alderdiarena behar lukeen kasuetan.

3. Urrunetik finantza-zerbitzuak ematen dituzten enpresaburuaren kasuan, gai horri buruzko berariazko araudiak ezarritako betebeharrak guztiz edo partez bete ez direla frogatzearen karga kontsumitzaileari ezartzea.

89. artikulua. Kontratua hobetzeari eta gauzatzeari eragiten dioten abusuzko klausulak

Abusuzko klausulatzat joko dira kasu guztietan:

1. Gezurrezko egitate batzuk jaso izana edo haiekiko adostasuna adieraztea kontsumitzaile eta erabiltzaileak, eta, orobat, kontratua egin baino lehen ezin ezagutu izan dituen klausula batzuei atxikitzen zaiela adieraztea.

2. Kontsumitzaile eta erabiltzaileari pasatzea berari ezin egotz dakizkiokeen hutsegite administratibo edo kudeaketazko batzuen ondorio ekonomikoak.

3. Legez enpresaburuari dagozkion dokumentazio- eta izapide-gastuak kontsumitzaileari ezartzea. Besteak beste, etxebizitza-salerosketan:

a) Kontsumitzailearen gain ezartzea titulazioa prestatzeak dakartzan eta izatez enpresaburuari dagozkion gastuak (obra berria, jabetza horizontala, erakuntza finantzatzeko hipoteka, edo haren zatitzea eta ezeztatzea).

b) La estipulación que obligue al consumidor a subrogarse en la hipoteca del empresario o imponga penalizaciones en los supuestos de no subrogación.

c) La estipulación que imponga al consumidor el pago de tributos en los que el sujeto pasivo es el empresario.

d) La estipulación que imponga al consumidor los gastos derivados del establecimiento de los accesos a los suministros generales de la vivienda, cuando ésta deba ser entregada en condiciones de habitabilidad.

4. La imposición al consumidor y usuario de bienes y servicios complementarios o accesorios no solicitados.

5. Los incrementos de precio por servicios accesorios, financiación, aplazamientos, recargos, indemnización o penalizaciones que no correspondan a prestaciones adicionales susceptibles de ser aceptados o rechazados en cada caso expresados con la debida claridad o separación.

6. La negativa expresa al cumplimiento de las obligaciones o prestaciones propias del empresario, con reenvío automático a procedimientos administrativos o judiciales de reclamación.

7. La imposición de condiciones de crédito que para los descubiertos en cuenta corriente superen los límites que se contienen en el artículo 19.4 de la Ley 7/1995, de 23 de marzo, de Crédito al Consumo.

8. La previsión de pactos de renuncia o transacción respecto al derecho del consumidor y usuario a la elección de fedatario competente según la ley para autorizar el documento público en que inicial o ulteriormente haya de formalizarse el contrato.

Artículo 90. Cláusulas abusivas sobre competencia y derecho aplicable

Son, asimismo, abusivas las cláusulas que establezcan:

1. La sumisión a arbitrajes distintos del arbitraje de consumo, salvo que se trate de órganos de arbitraje institucionales creados por normas legales para un sector o un supuesto específico.

2. La previsión de pactos de sumisión expresa a Juez o Tribunal distinto del que corresponda al domicilio del consumidor y usuario, al lugar del cumplimiento de la obligación o aquél en que se encuentre el bien si éste fuera inmueble.

b) Kontsumitzailea enpresaburuaren hipotekan subrogatzera behartzea, edo subrogatu ezean penalizazioak ezartzea.

c) Zergak kontsumitzaileari ordainaraztea, subjektu pasiboa enpresaburuaren kasuan.

d) Etxebizitzaren hornidura orokorretarako irispidea jartzeak eragindako gastuak kontsumitzailearen gain ezartzea, etxebizitza bizigarritasun-baldintzetan entregatzekoa den kasuan.

4. Eskatu gabeko ondasun edo zerbitzu gehigarri edo osagarriak ezartzea kontsumitzaile eta erabiltzaileari.

5. Prezioa igotzea zerbitzu osagarri, finantzaketa, atzerapen, errekaru, kalte-ordain edo penalizazioengatik, ez bada aukerarik eman kasuan-kasuan prestazio gehigarri hori hartzeko edo ez hartzeko, behar bezain argi eta bereiz adierazirik.

6. Espresuki uko egitea enpresaburuari dagozkion betebeharrak edo prestazioak betetzeari, eta automatikoki erreklamazio-prozedura administratibo edo judizialetara igortzea.

7. Kontu korronteko zorpekoen kreditu-baldintzak ezartzean, 1995eko martxoaren 23ko 7/1995 Kontsumorako Kredituaren Legearen 19.4 artikuluan ezarritako mugak gainditzea.

8. Hasieran edo geroago kontratua formalizatuko den agiri publikoa eskuesteko fede-emaile lege eskumendun bat aukeratzeko eskubideari itunez uko egiteko edo eskubide horren transakzioa egiteko itunak aurreikustea.

90. artikulua. Eskumenaren eta aplikatzekoa den zuzenbidearen aldetik abusuzko diren klausulak

Abusuzkoak dira, orobat, honelakoak ezartzen dituzten klausulak:

1. Kontsumokoaz besteko arbitraje batzuen mende jartzea, non eta ez diren arbitraje-organo instituzionalak, lege-arauz sektore edo kasu jakin baterako sortuak.

2. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak itunez espresuki adierazi behar izatea bere bizilekuaz, betebeharrak betetzeko lekuaz edo ondasuna —higiezina bada— dagoen lekuaz besteko epaile edo auzitegi bati menderatzen zaiola.

3. La sumisión del contrato a un Derecho extranjero con respecto al lugar donde el consumidor y usuario emita su declaración negocial o donde el empresario desarrolle la actividad dirigida a la promoción de contratos de igual o similar naturaleza.

Artículo 91. Contratos relativos a valores, instrumentos financieros y divisas

Las cláusulas abusivas referidas a la modificación unilateral de los contratos, a la resolución anticipada de los contratos de duración indefinida y al incremento del precio de bienes y servicios, no se aplicarán a los contratos relativos a valores, con independencia de su forma de representación, instrumentos financieros y otros bienes y servicios cuyo precio esté vinculado a una cotización, índice bursátil, o un tipo del mercado financiero que el empresario no controle, ni a los contratos de compraventa de divisas, cheques de viaje o giros postales internacionales en divisas.

TÍTULO III

CONTRATOS CELEBRADOS A DISTANCIA

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 92. Concepto de contratos celebrados a distancia

1. Se regirán por lo dispuesto en este título los contratos celebrados con los consumidores y usuarios en el marco de una actividad empresarial, sin la presencia física simultánea de los contratantes, siempre que la oferta y aceptación se realicen de forma exclusiva a través de una técnica cualquiera de comunicación a distancia y dentro de un sistema de contratación a distancia organizado por el empresario.

La validez y eficacia de los contratos relativos a bienes inmuebles quedará condicionada, además, al cumplimiento de los requisitos que impone su legislación específica.

2. Entre otras, tienen la consideración de técnicas de comunicación a distancia: los impresos, con o sin destinatario concreto; las cartas normalizadas; la

3. Atzerriko zuzenbide baten mende jartzea kontratua; hots, zuzenbide hori ez izatea kontsumitzaile eta erabiltzaileak bere negozio-deklarazioa egiten duen lekukoa edo enpresaburuak mota bereko edo antzeko kontratuak sustatzera bideraturiko jarduera egiten duen lekukoa.

91. artikulua. Baloreei, finantza-tresnei eta dibisei dagozkien kontratuak

Kontratuak alde baten erabakiz aldatzeari eta iraupen mugagabeko kontratuak denbora baino lehen desegiteari dagozkion abusuzko klausulak eta ondasun eta zerbitzuen prezioak igotzeari dagozkionak ez dira aplikatzekoak izango kontratu hauetan: baloreei buruzko kontratuak, edozein direla ere haien ordezkapen-modua, finantza-tresnak eta prezioa kotizazio bati, burtsa-indize bati edo enpresaburuak kontrolatzen ez duen beste finantza-merkatuko tasa bati lotua duten bestelako ondasun eta zerbitzuak; eta dibisa-salerosketaren, bidaiatxekeen edo nazioartean dibisatan egindako postazko igorpenen inguruko kontratuak.

III. TITULUA

URRUNETIK EGINDAKO KONTRATUAK

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

92. artikulua. Urrunetik egindako kontratuaren kontzeptua

1. Titulu honetan xedatutakoaren arabera eraenduko dira enpresa-jarduera baten barruan kontsumitzaile eta erabiltzaileekin aldi berean kontratatzaileak bertan izan gabe egindako kontratuak, betiere eskaintza eta onarpena urrunetiko edozein komunikazio-teknikaren bitartez soilik eta enpresaburuak antolaturiko urrunetiko kontratazio-sistema baten bitartez egiten badira.

Ondasun higieizinei buruzko kontratuak baliozko eta eraginkor izatea, gainera, haien berariazko legeriak ezartzen dituen betekizunak betetzearen mende egongo da.

2. Besteak beste, hauek hartzen dira urrunetiko komunikazio-teknikatzat: inprimakiak, hartzaile jakin bat izan edo ez; gutun normalizatuak; eskaera-ku-

publicidad en prensa con cupón de pedido; el catálogo; el teléfono, con o sin intervención humana, cual es el caso de las llamadas automáticas o el audio-texto; la radio; el teléfono con imagen; el videotexto con teclado o pantalla táctil, ya sea a través de un ordenador o de la pantalla de televisión; el correo electrónico; el fax y la televisión.

Artículo 93. Excepciones

1. La regulación establecida en este título no será de aplicación a:

a) Las ventas celebradas mediante distribuidores automáticos o locales comerciales automatizados.

b) Las ventas celebradas en subastas, excepto las efectuadas por vía electrónica.

c) Los contratos sobre servicios financieros.

d) Los contratos celebrados con los operadores de telecomunicaciones debido a la utilización de los teléfonos públicos.

e) Los celebrados para la construcción de bienes inmuebles.

2. Lo dispuesto en los artículos 96.1 y 2, sobre comunicaciones comerciales; 97, sobre información precontractual; 98, sobre confirmación escrita de la información; 101, sobre derecho de desistimiento, y 103, sobre ejecución y pago, no será de aplicación a:

a) Los contratos de suministro de productos alimenticios, de bebidas o de otros productos del hogar de consumo corriente suministrados en el domicilio del consumidor y usuario, en su residencia o en su lugar de trabajo por empresarios que realicen visitas frecuentes y regulares.

b) Los contratos de suministro de servicios de alojamiento, de transporte, de comidas o de esparcimiento, cuando el empresario se comprometa al celebrarse el contrato a suministrar tales prestaciones en una fecha determinada o en un período concreto.

Artículo 94. Comunicaciones comerciales y contratación electrónica

En las comunicaciones comerciales por correo electrónico u otros medios de comunicación electrónica y en la contratación a distancia de bienes o servicios por medios electrónicos, se aplicará además de lo dispuesto en este título, la normativa específica sobre servicios de la sociedad de la información y comercio electrónico.

poiak dituen prentsa-publizitatea; katalogoa; telefonoa, pertsonak tarteko izanik nahiz izan gabe, hala nola dei automatikoen edo audio-testuaren kasuan; irratia; telefono irudiduna; teklatura edo ukipen-pantaila duen bideo-testua, izan ordenagailu bidezkoa edo telebista-pantailaren bidezkoa; posta elektronikoa; faxes, eta telebista.

93. artikulua. Salbuespenak

1. Titulu honetan ezarritako arauak ez dira aplikatzekoak honako hauetan:

a) Banatzaile automatiko bidez edo lokal komertzial automatizatuen bidez egindako salmentak.

b) Enkanteetako salmentak, bide elektronikoz egindakoak salbu.

c) Finantza-zerbitzuei buruzko kontratuak.

d) Telefono publikoak erabiltzeagatik telekomunikazio-operadoreekin egindako kontratuak.

e) Ondasun higiezinak eraikitzeako kontratuak.

2. Ez da aplikatzekoa izango 96.1 eta 96.2 artikuluetan komunikazio komertzialei buruz xedatutakoa, 97.ean kontratu aurreko informazioaz xedaturikoa, 98.ean informazioaren baieztapen idatziaz xedatutakoa, 101.ean utziespen-eskubideari buruz xedaturikoa, eta 103.ean gauzatzeari eta ordaintzeari buruz xedaturikoa honako hauetan:

a) Enpresaburuak bisita sarri eta erregularrak eginez kontsumitzaile eta erabiltzaileari janari-produktuak, edariak edo etxerako beste produktu kontsumo arrunteko batzuk etxean, egoitzan edo lantokian hornitzeko kontratuak.

b) Ostatu-, garraio-, janari- edo aisialdi-zerbitzuak hornitzeko kontratuak, enpresaburuak kontratua burutzean konpromisoa hartzen duenean prestazio horiek data edo epe jakin batean emateko.

94. artikulua. Komunikazio komertzialak eta kontratu elektronikoak

Posta elektronikoaren edo bestelako komunikabide elektroniko batzuen bidezko komunikazio komertzialetan eta ondasun edo zerbitzuak urrunetik birtarteko elektronikoz kontratatzean, titulu honetan xedaturikoaz gainera, informazio-gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzko berariazko araudia ere aplikatuko da.

Cuando lo dispuesto en este título entre en contradicción con el contenido de la normativa específica sobre servicios de la sociedad de la información y comercio electrónico, ésta será de aplicación preferente.

Artículo 95. Servicios de intermediación

Los operadores de las técnicas de comunicación a distancia, entendiéndose por tales a las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que sean titulares de las técnicas de comunicación a distancia utilizadas por los empresarios, están obligados a procurar, en la medida de sus posibilidades, que éstos respeten los derechos que este título reconoce a los consumidores y usuarios y cumplan las obligaciones que en él se les imponen.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no será exigible a los prestadores de servicios de intermediación de la sociedad de la información, que se regirán por lo previsto en la normativa específica sobre servicios de la sociedad de la información y el comercio electrónico.

Artículo 96. Comunicaciones comerciales

1. En todas las comunicaciones comerciales deberá constar inequívocamente su carácter comercial.

2. En el caso de comunicaciones telefónicas, deberá precisarse explícita y claramente, al principio de cualquier conversación con el consumidor y usuario, la identidad del empresario y la finalidad comercial de la llamada.

3. La utilización por parte del empresario de las técnicas de comunicación que consistan en un sistema automatizado de llamada sin intervención humana o el telefax necesitará el consentimiento expreso previo del consumidor y usuario.

4. En todo caso, deberán cumplirse las disposiciones vigentes sobre protección de los menores y respeto a la intimidad. Cuando se utilicen datos personales procedentes de fuentes accesibles al público para la realización de comunicaciones comerciales, se proporcionará al destinatario la información que señala la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, y se ofrecerá al destinatario la oportunidad de oponerse a la recepción de las mismas.

Titulu honetan xedaturikoa kontraesanean badago informazio-gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzko berariazko araudiaren edukiarekin, azken hori aplikatuko da lehentasunez.

95. artikulua. Bitartekaritza-zerbitzuak

Urrunetiko komunikazio-tekniketako operadoreak —halakotzat harturik enpresaburuek erabiltzen dituzten urrunetiko komunikazio-tekniken titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak— beharturik daude, ahal duten neurrian, ahaleginak egitera enpresaburuek titulu honek kontsumitzaile eta erabiltzaileei aitortzen dizkien eskubideak errespetatu ditzaten eta bertan ezartzen zaizkien betebeharrak bete ditzaten.

Aurreko paragrafoan xedaturikoa ezin galda dakieke informazio-gizarteko bitartekaritza-zerbitzuak ematen dituztenei; horiek informazio-gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzko berariazko araudian xedaturikoak eraenduko ditu.

96. artikulua. Komunikazio komertzialak

1. Komunikazio komertzial orotan, argi eta garbi adierazi beharko da komertziala dela.

2. Telefonozko komunikazioen kasuan, espresuki eta argi adierazi beharko da, kontsumitzaile eta erabiltzailearekiko solasaldiaren hasieratik, enpresaburua nor den eta deiaren xedea komertziala dela.

3. Enpresaburuak gizakiaren partaidetzarik gabeko dei-sistema automatizatu bat edo telefaxa erabiltzekotan komunikazio-teknika gisa, kontsumitzaile eta erabiltzaileak berariazko baimena eman beharko du aurrez.

4. Adingabeen babesari buruz eta intimitatearen errespetuari buruz indarrean diren xedapenak bete beharko dira, kasu guztietan. Jendearen irispidean dauden iturrietatik hartutako datu pertsonalak erabiltzen badira komunikazio komertzialetarako, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoak zehazten duen informazioa emango zaio komunikazioen hartzaileari, eta aukera emango zaio jasotzeari uko egiteko.

CAPÍTULO II

Información precontractual y contratos

Artículo 97. Información precontractual

1. Antes de iniciar el procedimiento de contratación y con la antelación necesaria, el empresario deberá suministrar al consumidor y usuario, de forma veraz y suficiente, la información prevista en el artículo 60 y además:

a) El coste de la utilización de la técnica de comunicación a distancia cuando se calcule sobre una base distinta de la tarifa básica.

b) Las características esenciales del bien o servicio.

c) Los gastos de entrega y transporte, en su caso.

d) El plazo de vigencia de la oferta y del precio y, en su caso, la ausencia del derecho de desistimiento en los supuestos previstos en el artículo 102.

e) La duración mínima del contrato, si procede, cuando se trate de contratos de suministro de bienes o servicios destinados a su ejecución permanente o repetida.

f) Las circunstancias y condiciones en que el empresario puede suministrar un bien o servicio de calidad y precio equivalentes, en sustitución del solicitado por el consumidor y usuario, cuando se quiera prever esta posibilidad.

g) La forma de pago y modalidades de entrega o de ejecución.

h) En su caso, indicación de si el empresario dispone o está adherido a algún procedimiento extrajudicial de solución de conflictos.

2. La información contenida en el apartado anterior, cuya finalidad comercial debe ser indudable, deberá facilitarse al consumidor y usuario de modo claro e inequívoco, mediante cualquier técnica adecuada al medio de comunicación a distancia utilizado, y deberá respetar, en particular, el principio de buena fe en las transacciones comerciales, así como los principios de protección de quienes sean incapaces de contratar.

Artículo 98. Confirmación escrita de la información

1. Antes de la ejecución del contrato deberá facilitarse al consumidor y usuario, en la lengua utilizada en la propuesta de contratación o, en su caso, en la lengua elegida para la contratación, la siguiente información:

II. KAPITULUA

Kontratu aurreko informazioa eta kontratuak

97. artikulua. Kontratu aurreko informazioa

1. Kontratua egiteko prozedura hasi aurretik, eta behar besteko aurrerapez, 60. artikuluan adierazitako informazioa eman beharko dio enpresaburuak kontsumitzaile eta erabiltzaileari, modu egiazko eta nahikoan, eta gainera:

a) Urrunetiko komunikazio-teknika bat erabiltzearen kostua, oinarrizko tarifaz besteko oinarri baten gainean kalkulatzen denean.

b) Ondasun edo zerbitzuaren funtsezko ezaugarriak.

c) Entrega- eta garraio-gastuak, halakorik bada.

d) Eskaintzak eta prezioak zenbat denbora iraungo duten indarrean, eta, hala badagokio, 102. artikuluan adierazitako kasuetan utziespen-eskubidea baliatzeko aukerarik ez dela.

e) Kontratuaren gutxieneko iraupena, hala badagokio, etengabe edo behin eta berriz gauzatzeko ondasun edo zerbitzuetarako kontratuen kasuan.

f) Zer inguruabar eta baldintzatan eman dezakeen enpresaburuak kalitate eta prezio baliokideko ondasun edo zerbitzu bat, kontsumitzaile eta erabiltzaileak eskatutakoaren ordez, aukera hori aurreikusi nahi denean.

g) Ordaintzeko modua eta entregatzeko edo gauzatzeko modua.

h) Enpresaburuak gatazkak judiziorik kanpo ebazteko prozeduraren bat baldin badu edo hari atxikia badago, hori adieraztea.

2. Aurreko zenbakiko informazioa, zalantzarik gabe xede komertziala duela, modu argi eta garbian adierazi beharko zaio kontsumitzaile eta erabiltzaileari, erabilitako urrunetiko komunikabideari egoki datorkion edozein teknika bitartez, bereziki errespetatuz merkataritza-salerosketetako fede onaren printzipioa, eta orobat kontratatzeko gaitasunik ez dutenen babesaren printzipioak.

98. artikulua. Informazioa idatziz baieztatzea

1. Kontratua gauzatu aurretik, honako informazio hau eman beharko zaio kontsumitzaile eta erabiltzaileari, kontratu-proposamenean erabilitako hizkuntza berean edo, hala badagokio, kontraturako aukeratutako hizkuntzan:

a) La información prevista en el artículo anterior.

b) La dirección del establecimiento del empresario donde el consumidor y usuario pueda presentar sus reclamaciones.

c) La información relativa a los servicios de asistencia técnica u otros servicios postventa y a las garantías existentes.

d) Las condiciones para la denuncia del contrato, en caso de celebración de un contrato de duración indeterminada o de duración superior a un año.

2. La información a que se refiere el apartado anterior deberá facilitarse por escrito o, salvo oposición expresa del consumidor y usuario, en cualquier soporte de naturaleza duradera, adecuado a la técnica de comunicación a distancia utilizada.

3. No será exigible lo dispuesto en este artículo a los contratos relativos a servicios cuya ejecución se realice utilizando una técnica de comunicación a distancia que se presten de una sola vez, cuya facturación sea efectuada por el operador de la técnica de comunicación. No obstante, el consumidor y usuario, en cualquier caso, deberá estar en condiciones de conocer la dirección geográfica del establecimiento del empresario donde pueda presentar sus reclamaciones.

Artículo 99. Necesidad de consentimiento expreso

1. En ningún caso la falta de respuesta a la oferta de contratación a distancia podrá considerarse como aceptación de ésta.

2. Si el empresario, sin aceptación explícita del consumidor y usuario destinatario de la oferta, le suministrase el bien o servicio ofertado, se aplicará lo dispuesto en el artículo siguiente.

Artículo 100. Prohibición de envíos no solicitados

1. Queda prohibido suministrar al consumidor y usuario bienes o servicios no pedidos por él cuando dichos suministros incluyan una petición de pago de cualquier naturaleza.

En caso de que así se haga, y sin perjuicio de la infracción que ello suponga, el consumidor y usuario receptor de tales bienes o servicios no estará obligado a su devolución, ni podrá reclamársele el precio.

En caso de que decida devolverlo no deberá indemnizar por los daños o deméritos sufridos por el bien o servicio.

- a) Aurreko artikuluan adierazitako informazioa.
- b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileak erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituen saltokiaren helbidea, enpresaburuarena.
- c) Laguntza teknikoari, saldu ondoko beste zerbitzu batzuei eta bermeei buruzko informazioa.
- d) Kontratua denuntziatzeko baldintzak, iraupen mugagabeko edo urtebete baino gehiagorako kontratu bat egiten den kasuan.

2. Aurreko zenbakian adierazitako informazioa idatziz eman beharko da, edo, kontsumitzaile eta erabiltzaileak berariaz aurkakoa adierazi ezean, izaeraz iraunkorra den eta erabilitako urrunetiko komunikazio-teknikari egoki dator-kion edozein euskarritan.

3. Artikulu honetan adierazitakoa ez da galdutuko urrunetiko komunikazio-teknika baten bitartez aldi bakar batez gauzatzekoak diren eta teknika horren eragileak fakturatzen dituen zerbitzuei buruzko kontratuetan. Hala ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak modua izan behar du jakiteko, kasu guztietan, enpresaburuak zer helbidetan duen erreklamazioak egin ahal izateko sal-tokia.

99. artikulua. Berariazko onespena eman beharra

1. Ezein kasutan ezin hartuko da eskaintzaren onspentzat urrunetiko kontratu-eskaintzari erantzun ez izana.

2. Baldin eta enpresaburuak, eskaintza zuzendu zaion kontsumitzaile eta erabiltzailearen berariazko onspenik gabe, eskaintako ondasun edo zerbitzua ematen badio kontsumitzaile eta erabiltzaileari, ondorengo artikuluan xedaturikoa aplikatuko da.

100. artikulua. Eskatu gabeko ezer bidaltzeko debekua

1. Debeku da eskatu gabeko ondasun edo zerbitzuak ematea kontsumitzaile eta erabiltzaileari, emate horrek edonolako ordain-eskaera bat badarama berekin.

Halakorik egiten bada, eta hargatik eragotzi gabe lege-hauste izatea, ondasun edo zerbitzuak jasotzen dituen kontsumitzaile eta erabiltzailea ez da haiek itzultzera beharturik egongo, eta haren prezioa erreklamatu ere ezin egingo zaio.

Itzultzea erabakitzen badu, ez du ondasun edo zerbitzuak jasandako kalte edo makurren kalte-ordainik eman beharko.

2. No será de aplicación lo dispuesto en el párrafo segundo del apartado anterior cuando quede claramente de manifiesto al consumidor y usuario que el envío no solicitado se debió a un error, correspondiendo al empresario la carga de la prueba.

El consumidor y usuario en tales casos, tendrá derecho a ser indemnizado por los gastos y por los daños y perjuicios que se le hubieran causado.

CAPÍTULO III

Derecho de desistimiento

Artículo 101. Derecho de desistimiento

En la línea de incremento de protección respecto de los mínimos establecidos en la Directiva, la Ley mantiene el concepto amplio de consumidor hasta ahora existente, abarcando tanto a la persona física como a la jurídica que sea destinataria final de los bienes y servicios, si bien debe entenderse incluida también —según el criterio de la Directiva— a toda aquella persona que actúe con un propósito ajeno a su actividad profesional aunque no fuera destinataria final de los bienes o servicios objeto del contrato.

A diferencia de las condiciones generales, se estima procedente que también las Administraciones públicas queden incluidas, como estaban hasta ahora, en el régimen de protección de consumidores y usuarios frente a la utilización de cláusulas abusivas.

garestitzearren), eta orobat epai horiek Kontratuetakako Baldintza Orokorren Erregistroan nahitaez inskribatu beharra.

VI

VI. kapituluan, lege hau betetzeari dagokionez notarioek eta jabetza-erregistroaileek duten betebeharrak profesionalak arautzen da, eta orobat merkataritza-arteakariak beren eskumenen eremuan duten betebeharrak profesionalak.

VII

VII. kapituluan, kontratuetakako baldintza orokorren araudia ez betetzeagatik zehapenen araubidea ezartzen da; bereziki, klausula orokor deusezak erabiltzen edo gomendatzen jarraitzeak dakartzen zehapenak.

VIII

Legearen lehen xedapen gehigarriak aldatu egiten du 26/1984 Legea, 1984ko uztailaren 19koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Orokorra.

Direktiban ezarritako gutxienekoetatik haragoko babesak ematearen ildoan, lege honek eutsi egiten dio orain arteko kontsumitzaile kontzeptu zabalari, barne hartzen duelarik ondasun eta zerbitzuen azken xedeko den pertsona fisikoa zein juridikoa, eta orobat —direktibaren irizpidearen arabera— bere jardura profesionalaz kanpoko helburu batekin diharduen edozein pertsona, nahiz eta ez izan kontratuaren gai diren ondasun edo zerbitzuen azken xedeko.

Baldintza orokorretan gertatzen denaz bestera, egoki ikusi da administrazio publikoak ere sarturik egotea, orain arte bezala, kontsumitzaile eta erabiltzaileak abusuzko klausuletatik babesteko araubidean.

La Ley introduce una definición de cláusula abusiva, añadiendo un artículo 10 bis a la Ley 26/1984, considerando como tal la que en contra de las exigencias de la buena fe cause, en detrimento del consumidor, un desequilibrio importante de los derechos y obligaciones contractuales.

Al mismo tiempo se añade una disposición adicional primera a la citada Ley 26/1984, haciendo una enumeración enunciativa de las cláusulas abusivas, extraídas en sus líneas generales de la Directiva, pero añadiendo también aquellas otras que aun sin estar previstas en ella se estima necesario que estén incluidas en el Derecho español por su carácter claramente abusivo.

La regulación específica de las cláusulas contractuales en el ámbito de los consumidores, cuando no se han negociado individualmente (por tanto también los contratos de adhesión particulares), no impide que cuando tengan el carácter de condiciones generales se rijan también por los preceptos de la Ley de Condiciones Generales de la Contratación.

IX

La disposición adicional segunda modifica la Ley Hipotecaria para acomodar las obligaciones profesionales de los Registradores de la Propiedad a la normativa sobre protección al consumidor y sobre condiciones generales, adecuando a las mismas y a la legislación sobre protección de datos de las labores de calificación, información y publicidad formal. Dentro del ámbito de la seguridad jurídica extrajudicial, bajo la autoridad suprema y salvaguardia de Jueces y Tribunales, las normas registrales, dirigidas a la actuación profesional del Registrador, dados los importantes efectos de los asientos que practican, deben acomodarse a los nuevos requerimientos sociales, con la garantía añadida del recurso gubernativo contra la calificación, que goza de la naturaleza jurídica de los actos de jurisdicción voluntaria, todo lo cual contribuirá a la desjudicialización de la contratación privada y del tráfico jurídico civil y mercantil, sobre la base de que la inscripción asegura los derechos, actos y hechos jurídicos objeto de publicidad.

X

La disposición transitoria prevé la inscripción voluntaria de los contratos celebrados con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley, salvo que norma expresa determine la obligatoriedad de su inscripción en el Registro de

Abusuzko klausularen definizio bat ematen du legeak, 26/1984 Legeari eranstean dion 10 bis artikuluan: abusuzko klausulatzat jotzen du kontratuzko eskubide eta obligazioetan desoreka handia sortzen duena, kontsumitzailearen kaltetan, fede onak eskatzen duenaren kontra.

Era berean, lehenbiziko xedapen gehigarri bat eranstean zaio aipaturiko 26/1984 Legeari, non abusuzko klausulen zerrenda ireki bat egiten den, ildo nagusietan direktibatik hartua baina beste batzuk ere erantsita dituena, direktiban aurreikusi gabeko klausulak izan arren Espainiako zuzenbidean barneratu beharrekoak direla iritzi zaiolako, nabarmen abusuzkoak izateagatik.

Kontsumitzaileen eremuan kontratu-klausulak berariaz arautzea, banan-banan negoziatu gabeak diren kasuan (atxikitze-kontratu partikularretakoak ere bai, beraz), ez da eragozpen klausula horiek Kontratuetak Baldintza Orokorren Legearen mende egoteko, baldintza orokorren izaera dutenean.

IX

Bigarren xedapen gehigarriak aldatu egiten du Hipoteka Legea, jabetza-erregistratzaileen betebeharrak profesionalak kontsumitzailearen babesari eta baldintza orokorrei buruzko araudira egokitzearen, bat etor daitezen araudi horrekin eta kalifikatzean, informatzean eta publikotasun formala ematean datuak babesten dituen legeriarekin. Judizioz kanpoko segurtasun juridikoaren eremuan, epaile eta auzitegien autoritate gorenaren eta zaintzaren pean, gizartearen eskakizun berrietara egokitu behar dira erregistro-arauak, erregistratzaileen jarduera profesionalari buruzkoak, efektu garrantzitsuak baitituzte haien egindako idazpeneak. Gainera, berme erantsi gisa ezartzen da kalifikazioaren aurkako gobernu-errekurtsioa, borondatezko jurisdikzioko egintzen izaera juridikoarekin. Horrek guztiak kontratazio pribatua eta trafikoko juridiko zibila eta merkataritzakoa desjudizializatzen lagunduko du, hartarako oinarri harturik publikizatzen diren eskubide, egintza eta egitate juridikoak inskripzioaren bidez segurtatzen direla.

X

Xedapen iragankorrean, lege hau indarrean sartu aurretik egindako kontratuak borondatez inskribatzeko aukera aurreikusten da, non eta kontratuok ez diren Kontratuetak Baldintza Orokorren Erregistroan nahitaez inskribatu

Condiciones Generales de la Contratación, y ello sin perjuicio de la inmediata aplicación de los preceptos relativos a las acciones de cesación y retractación.

XI

La disposición derogatoria deja sin efecto el punto 2 de la disposición adicional segunda de la Ley 36/1988, de 5 de diciembre, de Arbitraje, como consecuencia de la reforma del artículo 10, número 3, de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios.

XII

La disposición final primera regula el título competencial, atribuyendo aplicación plena a los preceptos de la Ley por tratarse de materias afectantes al Derecho civil y mercantil, y por la regulación de un Registro jurídico estatal.

XIII

La disposición final segunda regula la autorización al Gobierno para el desarrollo reglamentario de la Ley.

XIV

La disposición final tercera determina la fecha de entrada en vigor de la Ley.

CAPITULO I

Disposiciones generales

Artículo 1. **Ámbito objetivo**

1. Son condiciones generales de la contratación las cláusulas predispuestas cuya incorporación al contrato sea impuesta por una de las partes, con inde-

beharrekoak, arau espresuren baten aginduz; horrek ez du eragozten bukarazte-eta erretraktatze-akzioei dagozkien xedapenak berehala aplikatzea.

XI

Xedapen derogatzaileak efekturik gabe uzten du 1998ko abenduaren 5eko 36/1988 Arbitraje Legearen bigarren xedapen gehigarriko 2. zenbakia, aldatu egin baita 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren 10.3 artikulua.

XII

Amaierako lehen xedapenak eskumenen titulua arautzen du, aplikagarritasun osoa emanez legearen xedapenei, zuzenbide zibilari eta merkataritza-zuzenbideari dagozkien gaiak direnez eta Estatuaren erregistro juridiko bat arautzen dutenez.

XIII

Amaierako bigarren xedapenak lege hau erregelamenduz garatzeko ahala ematen dio Gobernuari.

XIV

Amaierako hirugarren xedapenak legea indarrean sartzeko data zehazten du.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Eremu objektiboa

1. Kontratu-baldintza orokor dira alderdietako batek kontratuan ezarrazten dituen klausula aurrez prestatuak, kontratu batean baino gehiagotan txerta-

pendencia de la autoría material de las mismas, de su apariencia externa, de su extensión y de cualesquiera otras circunstancias, habiendo sido redactadas con la finalidad de ser incorporadas a una pluralidad de contratos.

2. El hecho de que ciertos elementos de una cláusula o que una o varias cláusulas aisladas se hayan negociado individualmente no excluirá la aplicación de esta Ley al resto del contrato si la apreciación global lleva a la conclusión de que se trata de un contrato de adhesión.

Artículo 2. Ámbito subjetivo

1. La presente Ley será de aplicación a los contratos que contengan condiciones generales celebrados entre un profesional —predisponente— y cualquier persona física o jurídica —adherente—.

2. A los efectos de esta Ley se entiende por profesional a toda persona física o jurídica que actúe dentro del marco de su actividad profesional o empresarial, ya sea pública o privada.

3. El adherente podrá ser también un profesional, sin necesidad de que actúe en el marco de su actividad.

Artículo 3. Ámbito territorial. Disposiciones imperativas

La presente Ley se aplicará a las cláusulas de condiciones generales que formen parte de contratos sujetos a la legislación española.

También se aplicará a los contratos sometidos a legislación extranjera cuando el adherente haya emitido su declaración negocial en territorio español y tenga en éste su residencia habitual, sin perjuicio de lo establecido en Tratados o Convenios internacionales. Cuando el adherente sea un consumidor se aplicará lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 10 bis de la Ley General para la Defensa de Consumidores y Usuarios.

Artículo 4. Contratos excluidos

La presente Ley no se aplicará a los contratos administrativos, a los contratos de trabajo, a los de constitución de sociedades, a los que regulan relaciones familiares y a los contratos sucesorios.

Tampoco será de aplicación esta Ley a las condiciones generales que reflejen las disposiciones o los principios de los Convenios internacionales en que el Reino de España sea parte, ni las que vengan reguladas específicamente por una

tzeko idatziak, edozein dela ere klausula horien egile materiala, kanpoko itxura, hedadura eta beste.

2. Klausula baten elementu batzuk edo klausula bat edo batzuk banan-banan negoziatu izanak ez du eragotziko lege hau aplikatzea kontratuaren gainerako zatiari, baldin eta, kontratua osotasunean harturik, atxikitze-kontratua dela ondorioztatzen bada.

2. artikulua. Eremu subjektiboa

1. Profesional batek —aurre-ezartzailea— eta edozein pertsona fisiko edo juridikok —atxikimendu-emailea— baldintza orokorrak dituen kontratu bat egitean izango da aplikatzekoa lege hau.

2. Profesionaltzat hartzen da, lege honen ondorioetarako, bere lanbide- edo enpresa-jardueraren barruan ari den pertsona fisiko edo juridiko oro, jarduera hori publikoa izan edo pribatua izan.

3. Atxikimendu-emailea ere izan daiteke profesional bat, ez nahitaz bere lanean ari dena.

3. artikulua. Lurralde-eremua. Aginduzko xedapenak

Espainiako legeriaren mendeko kontratuen parte diren baldintza orokorretako klausulei aplikatuko zaie lege hau.

Atzerriko legeriaren mendeko kontratuei ere aplikatuko zaie, kontratatzeko borondatearen adierazpena Espainiako lurraldean egina badu atxikimendu-emaileak eta han badu ohiko bizilekua, hargatik eragotzi gabe nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan ezarritakoa. Atxikimendu-emailea kontsumitzaile bat denean, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren 10 bis artikuluko 3. zenbakian xedaturikoa aplikatuko da.

4. artikulua. Kanpo utzitako kontratuak

Lege hau ez zaie aplikatuko administrazio-kontratuei, lan-kontratuei, sozietateak eratzeko kontratuei, familia-harremanak arautzen dituzten kontratuei eta oinordetza-kontratuei.

Ez zaie aplikatuko, orobat, Espainiako Erresuma parte den nazioarteko hitzarmenetako xedapen edo printzipioak islatzen dituzten baldintza orokorrei, ez eta izaera orokorreko lege-xedapen edo administrazio-xedapen batek berariaz

disposición legal o administrativa de carácter general y que sean de aplicación obligatoria para los contratantes.

Artículo 5. Requisitos de incorporación

1. Las condiciones generales pasarán a formar parte del contrato cuando se acepte por el adherente su incorporación al mismo y sea firmado por todos los contratantes. Todo contrato deberá hacer referencia a las condiciones generales incorporadas.

No podrá entenderse que ha habido aceptación de la incorporación de las condiciones generales al contrato cuando el predisponente no haya informado expresamente al adherente acerca de su existencia y no le haya facilitado un ejemplar de las mismas.

2. Los adherentes podrán exigir que el Notario autorizante no transcriba las condiciones generales de la contratación en las escrituras que otorgue y que se deje constancia de ellas en la matriz, incorporándose como anexo. En este caso el Notario comprobará que los adherentes tienen conocimiento íntegro de su contenido y que las aceptan.

3. Cuando el contrato no deba formalizarse por escrito y el predisponente entregue un resguardo justificativo de la contraprestación recibida, bastará con que el predisponente anuncie las condiciones generales en un lugar visible dentro del lugar en el que se celebra el negocio, que las inserte en la documentación del contrato que acompaña su celebración; o que, de cualquier otra forma, garantice al adherente una posibilidad efectiva de conocer su existencia y contenido en el momento de la celebración.

4. En los casos de contratación telefónica o electrónica será necesario que conste en los términos que reglamentariamente se establezcan la aceptación de todas y cada una de las cláusulas del contrato, sin necesidad de firma convencional. En este supuesto, se enviará inmediatamente al consumidor justificación escrita de la contratación efectuada, donde constarán todos los términos de la misma.

5. La redacción de las cláusulas generales deberá ajustarse a los criterios de transparencia, claridad, concreción y sencillez.

Artículo 6. Reglas de interpretación

1. Cuando exista contradicción entre las condiciones generales y las condiciones particulares específicamente previstas para ese contrato, prevalecerán és-

arautuak dituen eta kontratugileek nahitaez aplikatu beharrekoak diren baldintza orokorrei ere.

5. artikulua. Kontratuan txertatzeko betekizunak

1. Baldintza orokorrak kontratuaren parte bihurtuko dira atxikimendu-emaileak hartan txertatzeari onespena eman eta kontratugile guztiek kontratua sinatzen dutenean. Txertatutako baldintza orokorren aipamena egin beharko du kontratu orok.

Ezin joko da onetsizat baldintza orokorrak kontratuan txertatzea baldin eta ezartzaileak ez badio atxikimendu-emaileari espresuki adierazi baldintza orokor horiek badirela eta haien ale bat eman.

2. Atxikimendu-emaileak galdatu ahal izango du notario baimen-emaileak ez ditzala kontratu-baldintza orokorrak eskriturretan jaso, baizik eta haien berri eman dezala matrizean eta eranskin gisa gehitu. Kasu horretan, notarioak egiaztatu beharko du atxikimendu-emaileek baldintza horien eduki osoaren berri badutela eta onartzen dituztela.

3. Kontratua ez bada idatziz formalizatu beharrekoa, eta jasotako ordainaren ziurtagiri bat ematen badu ezartzaileak, aski izango da negozioa burutzen den lekuan ikusteko moduko toki batean jartzea ezartzaileak baldintza orokorrak, kontratua egitean harekin batera doan dokumentazioan txertatzea, edo beste edozein modutan atxikimendu-emaileari egiazko aukera ematea, kontratua burutzeko unean, baldintza horiek badirela eta zer eduki duten jakiteko.

4. Telefonozko kontratazioetan eta kontratazio elektronikoenetan, beharrezko izango da kontratuaren baldintza guztiak banan-banan onartzen direla adieraztea, erregelamenduz ezarritako moduan, ohiko sinaduraren beharrik gabe. Kasu horretan, egindako kontratuaren ziurtagiri idatzia igorriko zaio berehala kontsumitzaileari, kontratuaren zehaztasun guztiak jasotzen dituen.

5. Baldintza orokorrak garden, argi, zehatz eta erraz idatzi beharko dira.

6. artikulua. Interpretazio-erregelak

1. Kontraesanik baldin bada baldintza orokorren eta kontratu jakin baterako berariaz zehazturiko baldintza partikularren artean, baldintza partikula-

tas sobre aquéllas, salvo que las condiciones generales resulten más beneficiosas para el adherente que las condiciones particulares.

2. Las dudas en la interpretación de las condiciones generales oscuras se resolverán a favor del adherente. En los contratos con consumidores esta norma de interpretación sólo será aplicable cuando se ejerciten acciones individuales.

3. Sin perjuicio de lo establecido en el presente artículo, y en lo no previsto en el mismo, serán de aplicación las disposiciones del Código Civil sobre la interpretación de los contratos.

CAPITULO II

No incorporación y nulidad de determinadas condiciones generales

Artículo 7. No incorporación

No quedarán incorporadas al contrato las siguientes condiciones generales:

a) Las que el adherente no haya tenido oportunidad real de conocer de manera completa al tiempo de la celebración del contrato o cuando no hayan sido firmadas, cuando sea necesario, en los términos resultantes del artículo 5.

b) Las que sean ilegibles, ambiguas, oscuras e incomprensibles, salvo, en cuanto a estas últimas, que hubieren sido expresamente aceptadas por escrito por el adherente y se ajusten a la normativa específica que discipline en su ámbito la necesaria transparencia de las cláusulas contenidas en el contrato.

Artículo 8. Nulidad

1. Serán nulas de pleno derecho las condiciones generales que contradigan en perjuicio del adherente lo dispuesto en esta Ley o en cualquier otra norma imperativa o prohibitiva, salvo que en ellas se establezca un efecto distinto para el caso de contravención.

2. En particular, serán nulas las condiciones generales que sean abusivas, cuando el contrato se haya celebrado con un consumidor, entendiendo por tales en todo caso las definidas en el artículo 10 bis y disposición adicional primera de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios.

rak nagusituko zaizkie orokorre, non eta orokorrak ez diren mesedegarriago atxikimendu-emailearentzat.

2. Baldintza orokor ilunak interpretatzean sorturiko zalantzak atxikimendu-emailearen alde ebatziko dira. Kontsumitzaileekin egindako kontratuetan, norbanakoen akzioak baliatzean bakarrik aplikatuko da interpretazio-arau hori.

3. Hargatik eragotzi gabe artikulua honetan adierazitakoa, Kode Zibilak kontratuen interpretazioari buruz dioena aplikatuko da beronetan aurreikusi gabekoari dagokionez.

II. KAPITULUA

Zenbait baldintza orokorren txertaezintasuna eta deuseztasuna

7. artikulua. Txertaezintasuna

Ez dira kontratuan txertaturik geldituko honelako baldintza orokorrak:

a) Kontratua egiteko unean atxikimendu-emaileak egiazki eta osotara ezin ezagutu izan dituenak, edo 5. artikulua dioenaren arabera sinatu beharrekoak izanik hala sinatu ez direnak.

b) Irakurtezin, anbiguo, ilun eta ulertezin direnak, salbu eta, azken horien artean, atxikimendu-emaileak idatziz espresuki onartuak izateaz gainera beren eremuan kontratu-klausulek behar duten gardentasuna zehazten duen berariazko araudiarekin bat datozenak.

8. artikulua. Deuseztasuna

1. Erabat deusez izango dira baldintza orokorrak baldin eta, atxikimendu-emailearen kaltetan, lege honetan edo aginduzko edo debekuzko beste edozein arautan xedatutakoaren kontra badoaz, betiere arau horietan ez bada bestelako efekturik ezartzen araua betetzen ez den kasurako.

2. Bereziki, deusez izango dira, kontratua kontsumitzaile batekin egin denean, baldintza orokor abusuzkoak, halakotzat harturik, betiere, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorrak (26/1984 Legea, 1984ko uz-tailaren 19koa) 10 bis artikuluan eta lehenbiziko xedapen gehigarrian definitzen dituenak.

Artículo 9. Régimen aplicable

1. La declaración judicial de no incorporación al contrato o de nulidad de las cláusulas de condiciones generales podrá ser instada por el adherente de acuerdo con las reglas generales reguladoras de la nulidad contractual.

2. La sentencia estimatoria, obtenida en un proceso incoado mediante el ejercicio de la acción individual de nulidad o de declaración de no incorporación, decretará la nulidad o no incorporación al contrato de las cláusulas generales afectadas y aclarará la eficacia del contrato de acuerdo con el artículo 10, o declarará la nulidad del propio contrato cuando la nulidad de aquéllas o su no incorporación afectara a uno de los elementos esenciales del mismo en los términos del artículo 1261 del Código Civil.

Artículo 10. Efectos

1. La no incorporación al contrato de las cláusulas de las condiciones generales o la declaración de nulidad de las mismas no determinará la ineficacia total del contrato, si éste puede subsistir sin tales cláusulas, extremo sobre el que deberá pronunciarse la sentencia.

2. La parte del contrato afectada por la no incorporación o por la nulidad se integrará con arreglo a lo dispuesto por el artículo 1258 del Código Civil y disposiciones en materia de interpretación contenidas en el mismo.

CAPITULO III

Del Registro de Condiciones Generales de la Contratación

Artículo 11. Registro de Condiciones Generales

1. Se crea el Registro de Condiciones Generales de la Contratación, que estará a cargo de un Registrador de la Propiedad y Mercantil, conforme a las normas de provisión previstas en la Ley Hipotecaria.

La organización del citado Registro se ajustará a las normas que se dicten reglamentariamente.

2. En dicho Registro podrán inscribirse las cláusulas contractuales que tengan el carácter de condiciones generales de la contratación con arreglo a lo dispuesto en la presente Ley, a cuyo efecto se presentarán para su depósito, por duplicado, los ejemplares, tipo o modelos en que se contengan, a instancia de cualquier interesado, conforme a lo establecido en el apartado 8 del presente

9. artikulua. Aplikatzekoa den araubidea

1. Baldintza orokorretako klausulak kontratuan ez txertatzeko edo haiek deuseztatzeko deklarazio judiziala eskatu ahal izango du atxikimendu-emaileak, kontratu-deuseztasuna arautzen duten erregela orokorren arabera.

2. Norbanako batek deuseztasun- edo txertaezintasun-deklarazioa eskatzeko akzioa baliatzen badu eta hala irekitako prozesuan baiespen-epaia ematen bada, ukitutako klausula orokorrak deusez edo txertaezin deklaratuko ditu epai horrek, eta kontratuaren eraginkortasuna norainokoa den argituko du, 10. artikulua dioenaren arabera; bestela, deusez deklaratuko du kontratua, klausulen deuseztasunak edo txertaezintasunak kontratuan funtsezkoa den elementuren bati eragiten badio, Kode Zibilaren 1261. artikulua dioenaren arabera.

10. artikulua. Efektuak

1. Baldintza orokorretako klausulak txertaezin edo deusez deklaratzek ez du ekarriko kontratua guztiz eraginkortasunik gabe gelditzea, klausula horiek gabe iraun badezake kontratuak; epaiak ebatzi beharko du hori.

2. Txertaezintasunak edo deuseztasunak ukitutako kontratu-zatia osatzeko, Kode Zibilaren 1258. artikuluari eta hark interpretazioari buruz dioenari jarraituko zaie.

III. KAPITULUA

Kontratuetoako Baldintza Orokorren Erregistroa

11. artikulua. Baldintza Orokorren Erregistroa

1. Kontratuetoako Baldintza Orokorren Erregistroa sortzen da. Jabetza- eta merkataritza-erregistratzaile batek izango du haren ardura, Hipoteka Legean lanpostuak hornitzeko aurreikusitako arauen arabera.

Erregelamenduz emandako araei atxikiko zaie erregistro horren antolamendua.

2. Lege honen arabera kontratuetoako baldintza orokor diren kontratu-klausulak inskribatu ahal izango dira Erregistroan. Horretarako, klausula horiek biltzen dituzten ale, tipo edo eredu bi kopia aurkeztuko dira gordailuan uzteko, edozein interesdunen eskariz, artikulua honen 8. zenbakian ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, Gobernuak esku izango du kontratazio-sektore jakin

artículo. No obstante, el Gobierno, a propuesta conjunta del Ministerio de Justicia y del Departamento ministerial correspondiente, podrá imponer la inscripción obligatoria en el Registro de las condiciones generales en determinados sectores específicos de la contratación.

3. Serán objeto de anotación preventiva la interposición de las demandas ordinarias de nulidad o de declaración de no incorporación de cláusulas generales, así como las acciones colectivas de cesación, de retractación y declarativa previstas en el Capítulo IV, así como las resoluciones judiciales que acuerden la suspensión cautelar de la eficacia de una condición general.

Dichas anotaciones preventivas tendrán una vigencia de cuatro años a contar desde su fecha, siendo prorrogable hasta la terminación del procedimiento en virtud de mandamiento judicial de prórroga.

4. Serán objeto de inscripción las ejecutorias en que se recojan sentencias firmes estimatorias de cualquiera de las acciones a que se refiere el apartado anterior. También podrán ser objeto de inscripción, cuando se acredite suficientemente al Registrador, la persistencia en la utilización de cláusulas declaradas judicialmente nulas.

5. El Registro de Condiciones Generales de la Contratación será público.

6. Todas las personas tienen derecho a conocer el contenido de los asientos registrales.

7. La publicidad de los asientos registrales se realizará bajo la responsabilidad y control profesional del Registrador.

8. La inscripción de las condiciones generales podrá solicitarse:

a) Por el predisponente.

b) Por el adherente y los legitimados para ejercer la acción colectiva, si consta la autorización en tal sentido del predisponente. En caso contrario, se estará al resultado de la acción declarativa.

c) En caso de anotación de demanda o resolución judicial, en virtud del mismo mandamiento, que las incorporará.

9. El Registrador extenderá, en todo caso, el asiento solicitado, previa calificación de la concurrencia de los requisitos establecidos.

10. Contra la actuación del Registrador podrán interponerse los recursos establecidos en la legislación hipotecaria.

batzuetako baldintza orokorrak nahitaez erregistroan inskribatu beharra ezartzeko, Justizia Ministerioak eta dagokion ministerio-departamentuak batera proposaturik.

3. Prebentziozko idatz-oharretan jasoko dira klausula orokorren deuseztasun- edo txertaezintasun-deklarazioa eskatzen duten demanda arruntak, IV. kapituluaren aurreikusiriko bukarazte-, erretraktatze- edo deklarazio-akzio kolektiboak, eta baldintza orokor baten eraginkortasuna kautelazko geldieran uztea erabakitzen duten ebazpen judizialak.

Prebentziozko idatz-ohar horiek lau urteko indarraldia izango dute, beren datatik aurrera, eta prozeduraren amaiera arte luzatu ahal izango da aldi hori, luzatze-manamendu judizial baten bidez.

4. Erregistroan inskribatuko dira aurreko zenbakian aipaturiko akzioetatik edozein baiesten duten epai irmoen exekuzio-tituluak. Judizialki deusez deklaraturako klausulak erabiltzen jarraitu izana ere erregistratu ahal izango da, behar bezala egiaztatzen bazaio erregistratzaileari.

5. Publikoa izango da Kontratu etako Baldintza Orokorren Erregistroa.

6. Erregistro-idazpenen edukiaren berri jakiteko eskubidea du pertsona orok.

7. Erregistratzailearen ardura eta kontrol profesionalaren pean egingo dira publiko erregistro-idazpenak.

8. Hauek dira baldintza orokorrak inskribatzeko eska dezaketanak:

a) Aurre-ezartzailea.

b) Atxikimendu-emailea eta akzio kolektiboa baliatzeko legitimaturik daudenak, jasorik badago aurre-ezartzaileak horretarako baimena eman duela. Baimen hori izan ezean, deklarazte-akzioaren emaitzak aginduko du.

c) Demanda baten edo ebazpen judizial baten idatz-oharren kasuan, horretarako manamendua bera, baldintza orokorrak jasoko baititu.

9. Eskatutako idatz-oharra egin beharko du erregistratzaileak, kasu guztietan, betekizunak betetzeari buruzko kalifikazioa eman ondoren.

10. Erregistratzaileak egindakoaren kontra, hipoteka-legerian ezarritako errekurtsuak jarri ahal izango dira.

CAPITULO IV

Acciones colectivas de cesación, retractación y declarativa de condiciones generales

Artículo 12. Acciones de cesación, retractación y declarativa

1. Contra la utilización o la recomendación de utilización de condiciones generales que resulten contrarias a lo dispuesto en esta Ley, o en otras leyes imperativas o prohibitivas, podrán interponerse, respectivamente, acciones de cesación y retractación.

2. La acción de cesación se dirige a obtener una sentencia por medio de la cual se condene al demandado a eliminar de sus condiciones generales las que se reputen nulas y a abstenerse de utilizarlas en lo sucesivo, determinando o aclarando, cuando sea necesario, el contenido del contrato que ha de considerarse válido y eficaz.

A la acción de cesación podrá acumularse, como accesoria, la de devolución de cantidades que se hubiesen cobrado en virtud de las condiciones a que afecte la sentencia y la de indemnización de daños y perjuicios que hubiere causado la aplicación de dichas condiciones.

3. La acción de retractación tendrá por objeto obtener una sentencia que declare e imponga al demandado, sea o no el predisponente, el deber de retractarse de la recomendación que haya efectuado de utilizar las cláusulas de condiciones generales que se consideren nulas y de abstenerse de seguir recomendándolas en el futuro.

4. La acción declarativa se dirigirá a obtener una sentencia que reconozca una cláusula como condición general de la contratación y ordene su inscripción, cuando ésta proceda conforme a lo previsto en el inciso final del apartado 2 del artículo 11 de la presente ley.

Artículo 13. Sometimiento a dictamen de conciliación

Previamente a la interposición de las acciones colectivas de cesación, retractación o declarativa, podrán las partes someter la cuestión ante el Registrador de Condiciones Generales en el plazo de quince días hábiles sobre la adecuación a la Ley de las cláusulas controvertidas, pudiendo proponer una redacción alternativa a las mismas. El dictamen del Registrador no será vinculante.

IV. KAPITULUA

Bukarazteko, erretraktatzeko eta baldintza orokorrak deklaratzeko akzio kolektiboak

12. artikulua. Bukarazte-, erretraktatze- eta deklaratzeko-akzioak

1. Bukarazte- eta erretraktatze-akzioak jarri ahal izango dira, hurrenez hurren, lege honetan edo bestelako lege aginduzko edo debekuzkoetan xedaturikoaren kontrako diren baldintza orokorrak erabiltzearen aurka, eta halako baldintzak erabiltzeko gomendioa ematearen aurka.

2. Bukarazte-akzioaren bidez, lortu nahi da demandatua bere baldintza orokorretatik deuseztat jotzen direnak kentzera eta aurrerantzean ez erabiltzera kondenatuko duen epai bat ematea, hartan zehaztuz eta argituz, behar izanez gero, kontratuaren zer zati jo behar den baliozko eta eraginkortzat.

Bukarazte-akzioari metatu ahal izango zaio, osagarri gisa, kobratu diren kopuruak itzultzekoa, epaiak adierazten dituen baldintzen arabera, eta orobat kalte-galerak ordaintzekoa, halakorik sortzen badu aipatutako baldintzak aplikatzeak.

3. Erretraktatze-akzioaren bidez, eskatuko da epai baten bitartez adieraz dadila demandatua behartua dagoela, aurre-ezartzailea bera izan edo ez, deusez jotzen diren baldintza orokorretako klausulak erabiltzeko berak emandako gomendiotik erretraktatzera eta aurrerantzean ez gomendatzera.

4. Deklaratzeko-akzioaren xedea da epai baten bitartez aitortzea klausula bat kontratuetako baldintza orokorra dela eta agintzea klausula hori inskribatu dadila, hala badagokio, lege honen 11. artikuluko 2. zenbakiaren azken puntuan aurreikusitakoaren arabera.

13. artikulua. Adiskidetze-irizpena eskatzea

Bukarazte-, erretraktatze- eta deklaratzeko-akzio kolektiboak baliatu aurretik, baldintza orokorren erregistratzaileari aurkeztu ahal izango diote alderdiek gaia, hamabost egun baliiodunen epean, klausula eztabaidatuak legearen arabekoak diren edo ez esan dezan hark, eta ordezeko testu-aukera bat ere aurkeztu ahal izango dute. Erregistratzailearen irizpenak ez du lotura-indaririk izango.

Artículo 14. Competencia material y tramitación del proceso¹

Artículo 15. Competencia territorial²

Artículo 16. Legitimación activa

Las acciones previstas en el artículo 12 podrán ser ejercitadas por las siguientes entidades:

1. Las asociaciones o corporaciones de empresarios, profesionales y agricultores que estatutariamente tengan encomendada la defensa de los intereses de sus miembros.

2. Las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación.

3. Las asociaciones de consumidores y usuarios que reúnan los requisitos establecidos en la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, o, en su caso, en la legislación autonómica en materia de defensa de los consumidores.

4. El Instituto Nacional de Consumo y los órganos correspondientes de las Comunidades Autónomas y de las Corporaciones locales competentes en materia de defensa de los consumidores.

5. Los colegios profesionales legalmente constituidos.

6. El Ministerio Fiscal.

Las entidades de otros Estados miembros de la Comunidad Europea constituidas para la protección de los intereses colectivos y de los intereses difusos de los consumidores que estén habilitadas mediante su inclusión en la lista publicada a tal fin en el «Diario Oficial de las Comunidades Europeas».

Los Jueces y Tribunales aceptarán dicha lista como prueba de la capacidad de la entidad habilitada para ser parte, sin perjuicio de examinar si la finalidad de la misma y los intereses afectados legitiman el ejercicio de la acción.

Todas las entidades citadas en este artículo podrán personarse en los procesos promovidos por otra cualquiera de ellas, si lo estiman oportuno, para la defensa de los intereses que representan.

¹ Este artículo ha sido derogado por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

² Este artículo ha sido derogado por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

14. artikulua. Eskumen materiala eta prozesuaren izapidetzea¹

15. artikulua. Lurralde-eskumena²

16. artikulua. Legitimazio aktiboa

Hauek dira 12. artikuluan aurreikusiriko akzioak balia ditzaketen entitateak:

1. Enpresaburuen, profesionalen eta nekazarien elkarte edo erakundeak, estatutuen arabera kideen interesen defentsa beren gain hartua dutenak.

2. Merkataritza-, industria- eta itsasketa-ganberak.

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak, baldin eta betetzen badi-tuzte Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorrak ezartzen dituen betekizunak, edo, hala badagokio, kontsumitzaileen defentsari dagozkion gaitako legeria autonomikoan ezarritakoak.

4. Kontsumo Institutu Nazionala, eta autonomia-erkidegoetan eta toki-korporazioetan kontsumitzaileen defentsan eskudun diren haren kideko organoak.

5. Legez eraturiko profesional-elkargoak.

6. Fiskaltza.

7. Europar Erkidegoko kide diren beste estatu batzuetan kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes kolektiboak eta interes lausoak babesteko eraturik dauden entitateak, hartarako gaiturik badaude *Europar Erkidegoen Egunkari Ofizialean* argitaraturiko zerrendan sartuta.

Epaile eta auzitegiek zerrenda hori onartuko dute gaituriko entitateak alderdi izateko duen gaitasunaren frogatzat; hala ere, aztertuko dute ea entitatearen helburuak eta ukituriko interesek legitimitaterik ematen duten akzioa baliatzeko.

Lege honen 16. artikulua araberako legitimazioa duten entitate guztiak pertsonatu ahal izango dira haietariko edozeinek abiarazitako prozesuetan, egoki iritiz gero, ordezkatzan dituzten interesak defendatzeko.

¹ 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legeak derogatua.

² 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legeak derogatua.

Artículo 17. Legitimación pasiva

1. La acción de cesación procederá contra cualquier profesional que utilice condiciones generales que se reputen nulas.

2. La acción de retractación procederá contra cualquier profesional que recomiende públicamente la utilización de determinadas condiciones generales que se consideren nulas o manifieste de la misma manera su voluntad de utilizarlas en el tráfico, siempre que en alguna ocasión hayan sido efectivamente utilizadas por algún predisponente.

3. La acción declarativa procederá contra cualquier profesional que utilice las condiciones generales.

4. Las acciones mencionadas en los apartados anteriores podrán dirigirse conjuntamente contra varios profesionales del mismo sector económico o contra sus asociaciones que utilicen o recomienden la utilización de condiciones generales idénticas que se consideren nulas.

Artículo 18. Intervinientes en el proceso y recurso de casación³

Artículo 19. Prescripción

1. Las acciones colectivas de cesación y retractación son, con carácter general, imprescriptibles.

2. No obstante, si las condiciones generales se hubieran depositado en el Registro General de Condiciones Generales de la Contratación, dichas acciones prescribirán a los cinco años, computados a partir del día en que se hubiera practicado dicho depósito y siempre y cuando dichas condiciones generales hayan sido objeto de utilización efectiva.

3. Tales acciones podrán ser ejercitadas en todo caso durante los cinco años siguientes a la declaración judicial firme de nulidad o no incorporación que pueda dictarse con posterioridad como consecuencia de la acción individual.

4. La acción declarativa es imprescriptible.

Artículo 20. Efectos de la sentencia⁴

³ Este artículo ha sido derogado por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

⁴ Este artículo ha sido derogado por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

17. artikulua. Legitimazio pasiboa

1. Bukarazte-akzioa bidezko izango da deuseztat jotako baldintza orokorrak erabiltzen dituen edozein profesionalen kontra.

2. Baldintza orokor batzuk deuseztat jo badira, erretraktatze-akzioa bidezko izango da haiek erabiltzeko gomendio publikoa egiten duen edo publikoki baldintza horiek trafikoan erabiltzeko asmoa adierazten duen edozein profesionalen kontra, klausula horiek noizbait ezartzailearen batek egiazki erabili baditu.

3. Deklaratze-akzioa bidezko izango da baldintza orokorrak erabiltzen dituen edozein profesionalen kontra.

4. Aurreko zenbakietan adierazitako akzioak aldi berean zuzendu ahal izango dira ekonomia-sektore bereko profesional bat baino gehiagoren kontra edo haien elkarteen kontra, deuseztat jotzen diren baldintza orokor berdinak erabiltzen badituzte edo erabiltzeko gomendioa egiten badute.

18. artikulua. Prozesuan esku hartzen dutenak eta kasazio-errekurtsioa³

19. artikulua. Preskripzioa

1. Bukarazte- eta erretraktatze-akzio kolektiboek, oro har, ez dute preskripzioirik.

2. Hala ere, Kontratuetako Baldintza Orokorraren Erregistro Nagusian gordailuan jasoak badira, baldintza orokorrek bost urteren buruan preskribatuko dute, gordailutu diren egunetik kontatzen hasita, betiere baldintzak egiazki erabiliak izan badira.

3. Banakako akzioaren ondorioz deuseztasun- edo txertaezintasun-deklarazio judizial irmo bat ematen bada, epai horren ondorengo bost urteetan izango da aukera bukarazte- eta erretraktatze-akzioak baliatzeko.

4. Deklaratze-akzioak ez du preskripzio-eperik izango.

20. artikulua. Epaiaren efektuak⁴

³ 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legeak derogatua.

⁴ 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilaren Legeak derogatua.

CAPITULO V

Publicidad de las sentencias

Artículo 21. Publicación

El fallo de la sentencia dictada en el ejercicio de una acción colectiva, una vez firme, junto con el texto de la cláusula afectada, podrá publicarse por decisión judicial en el «Boletín Oficial del Registro Mercantil» o en un periódico de los de mayor circulación de la provincia correspondiente al Juzgado donde se hubiera dictado la sentencia, salvo que el Juez o Tribunal acuerde su publicación en ambos, con los gastos a cargo del demandado y condenado, para lo cual se le dará un plazo de quince días desde la notificación de la sentencia.

Artículo 22. Inscripción en el Registro de Condiciones Generales

En todo caso en que hubiere prosperado una acción colectiva o una acción individual de nulidad o no incorporación relativa a condiciones generales, el Secretario Judicial dictará mandamiento al titular del Registro de Condiciones Generales de la Contratación para la inscripción de la sentencia en el mismo.

CAPITULO VI

Información sobre condiciones generales

Artículo 23. Información

1. Los Notarios y Registradores de la Propiedad y Mercantiles advertirán en el ámbito de sus respectivas competencias de la aplicabilidad de esta Ley, tanto en sus aspectos generales como en cada caso concreto sometido a su intervención.

2. Los Notarios, en el ejercicio profesional de su función pública, velarán por el cumplimiento, en los documentos que autoricen, de los requisitos de incorporación a que se refieren los artículos 5 y 7 de esta Ley. Igualmente advertirán de la obligatoriedad de la inscripción de las condiciones generales en los casos legalmente establecidos.

3. En todo caso, el Notario hará constar en el contrato el carácter de condiciones generales de las cláusulas que tengan esta naturaleza y que figuren previamente inscritas en el Registro de Condiciones Generales de la Contratación, o la manifestación en contrario de los contratantes.

V. KAPITULUA

Epaiak publiko egitea

21. artikulua. Argitaratzea

Akzio kolektibo bat dela-eta emandako epai baten epaitza, irmo geratutakoan, dagokion klausularen testuarekin batera, argitara eman ahal izango da, agindu judizialez, *Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean* edo epaia eman den epaitegiaren probintzian hedapen handiena duten egunkarietarikoa batean —edo bietan, epaileak edo auzitegiak hala erabakiz gero—, mandatatu eta kondenatuaren gain doazela gastuak. Hamabost egunen epea emango da argitaratzeko, epaia jakinarazten denetik hasita.

22. artikulua. Baldintza Orokorren Erregistroan inskribatzea

Baldintza orokorrei buruzko akzio bat aurrera atera den guztietan, izan akzio kolektibo bat edo deusezetasunari edo txertaezintasunari buruzko norbanakoen akzio bat, epaia Kontratuetaiko Baldintzen Erregistroan inskribatzeko manamendua egingo dio idazkari judizialak erregistro horretako titularrari.

VI. KAPITULUA

Baldintza orokorrei buruzko informazioa

23. artikulua. Informazioa

1. Notarioek eta jabetza- edo merkataritza-erregistratzaileek, bakoitzak bere eskumenen eremuan, ohartaraziko dute zer aplikagarritasun duen lege honek, hala orokorrean nola esku hartzen duten kasu jakinetariko bakoitzean.

2. Notarioek, beren funtzio publikoko jardun profesionalean, begiratu dute eskuesten dituzten agirietan lege honen 5. eta 7. artikuluetako txertatze-betekizunak bete daitezela. Ohartaraziko dute, bestalde, nahitaezkoa dela baldintza orokorrak erregistratzea, legez hala ezarrita dagoen kasuetan.

3. Kasu guztietan, notarioak kontratuan jasorik utziko du baldintza orokor direla kontratu horren klausulak, hala badira eta Kontratuetaiko Baldintza Orokorren Erregistroan inskribaturik badaude; edo, bestela, kontratatzaileek kontrakoa adierazi dutela.

4. Los Corredores de Comercio en el ámbito de sus competencias, conforme a los artículos 93 y 95 del Código de Comercio, informarán sobre la aplicación de esta Ley.

CAPITULO VII

Régimen sancionador

Artículo 24. Régimen sancionador

La falta de inscripción de las condiciones generales de la contratación en el Registro regulado en el Capítulo III cuando sea obligatoria o la persistencia en la utilización o recomendación de condiciones generales respecto de las que ha prosperado una acción de cesación o retractación, será sancionada con multa del tanto al duplo de la cuantía de cada contrato por la Administración del Estado, a través del Ministerio de Justicia, en los términos que reglamentariamente se determinen, en función del volumen de contratación, del número de personas afectadas y del tiempo transcurrido desde su utilización.

No obstante, las sanciones derivadas de la infracción de la normativa sobre consumidores y usuarios, se regirá por su legislación específica.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. Modificación de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios

Se introducen las siguientes modificaciones en la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios:

Uno. El párrafo b) del apartado 1 del artículo 2 queda redactado de la forma siguiente:

«La protección de sus legítimos intereses económicos y sociales; en particular, frente a la inclusión de cláusulas abusivas en los contratos».

Dos. El artículo 10 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 10

1. Las cláusulas, condiciones o estipulaciones que se apliquen a la oferta o promoción de productos o servicios, y las cláusulas no negociadas indivi-

4. Merkataritza-artekariak, beren eskumenen eremuan, Merkataritza Kodearen 93. eta 95. artikuluen arabera, lege honen aplikazioari buruzko txostena emango dute.

VII. KAPITULUA

Zehapen-araubidea

24. artikulua. Zehapenak

Kontratuetak baldintza orokorrak III. kapituluan arauturiko erregistroan inskribatzen ez badira, hori nahitaezkoa izanik, edo haiei buruzko bukarazte- edo erretraktatze-akzio bat onetsi delarik baldintza orokorren batzuk erabiltzen edo haien erabilera gomendatzen jarraitzen bada, kontratu bakoitzaren muntatik haren bikoitzera bitarteko isunez zehatuko du hori Estatuaren Administrazioak, Justizia Ministerioaren bitartez, erregelamenduz zehazten den moduan, kontratazio-bolumenaren, ukituriko pertsona kopuruaren eta klausulak erabiliz geroztik iragandako denboraren arabera.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko berariazko araudia urratzeagatik jarri bada zehapena, araudi horri jarraituko zaio.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra aldatzea

Honako aldaketa hauek egiten dira 1984ko uztailaren 19ko 26/1984 Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorrean.

Bat. Honela idatzirik geratzen da 2. artikulua 1. zenbakiko b) letra:

«Beren interes ekonomiko eta sozial legitimoen babes izatea; batez ere, kontratuetan abusuzko klausulak sartzearen kontra».

Bi. Honela idatzirik geratzen da 10. artikulua:

«10. artikulua

1. Betekizun hauek izango dituzte produktu edo zerbitzuen eskaintza edo sustapenari aplikatzen zaizkion klausula, baldintza edo estipulazioek, eta orobat

dualmente relativas a tales productos o servicios, incluidos los que faciliten las Administraciones públicas y las entidades y empresas de ellas dependientes, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Concreción, claridad y sencillez en la redacción, con posibilidad de comprensión directa, sin reenvíos a textos o documentos que no se faciliten previa o simultáneamente a la conclusión del contrato, y a los que, en todo caso, deberán hacerse referencia expresa en el documento contractual.

b) Entrega, salvo renuncia expresa del interesado, de recibo justificante, copia o documento acreditativo de la operación, o en su caso, de presupuesto debidamente explicado.

c) Buena fe y justo equilibrio entre los derechos y obligaciones de las partes, lo que en todo caso excluye la utilización de cláusulas abusivas.

2. En caso de duda sobre el sentido de una cláusula prevalecerá la interpretación más favorable para el consumidor.

3. Si las cláusulas tienen el carácter de condiciones generales, conforme a la Ley sobre Condiciones Generales de la Contratación, quedarán también sometidas a las prescripciones de ésta.

4. Los convenios arbitrales establecidos en la contratación a que se refiere este artículo serán eficaces si, además de reunir los requisitos que para su validez exigen las leyes, resultan claros y explícitos. La negativa del consumidor o usuario a someterse a un sistema arbitral distinto del previsto en el artículo 31 de esta Ley no podrá impedir por sí misma la celebración del contrato principal.

5. Las cláusulas, condiciones o estipulaciones que utilicen las empresas públicas o concesionarias de servicios públicos, estarán sometidas a la aprobación y control de las Administraciones públicas competentes, cuando así se disponga como requisito de validez y con independencia de la consulta prevista en el artículo 22 de esta Ley. Todo ello sin perjuicio de su sometimiento a las disposiciones generales de esta Ley.

6. Los Notarios y los Registradores de la Propiedad y Mercantiles, en el ejercicio profesional de sus respectivas funciones públicas, no autorizarán ni inscribirán aquellos contratos o negocios jurídicos en los que se pretenda la inclusión de cláusulas declaradas nulas por abusivas en sentencia inscrita en el Registro de Condiciones Generales.

Los Notarios, los Corredores de Comercio y los Registradores de la Propiedad y Mercantiles, en el ejercicio profesional de sus respectivas funciones

produktu edo zerbitzu horiei buruzko klausula banan-banan negoziatu gabeek, baita produktu eta zerbitzuok administrazio publikoek eta haien mendeko entitate eta enpresek emanak direnean ere:

a) Zehatz, argi eta erraz idatzita egotea, zuzenean ulertzeko moduan, kontratua itxi aurretik edo ixteko unean eman ez den beste ezein testu edo agiritara jo beharrik izan gabe; halakorik baldin bada, espresuki aipatu beharko da beti kontratu-agirian.

b) Interesdunak espresuki uko egiten ez badio behintzat, eragiketaren jasotze-agiria, kopia edo egiaztagiria ematea, edo, hala badagokio, behar bezala zehazturiko aurrekontua.

c) Fede ona eta alderdien eskubide eta obligazioen artean oreka justua izatea; horrek, edozein kasutan, abusuzko klausulak erabiltzea galarazten du.

2. Klausula baten zentzuari dagokionez dudarik izanez gero, kontsumitzaileari mesedegarrien zaion interpretazioa nagusituko da.

3. Klausulak, baldintza orokor badira Kontratuetakako Baldintza Orokorrei buruzko Legearen arabera, lege horretan agindutakoaren mende geratuko dira.

4. Artikulu honetan xedaturiko kontratazioan ezarritako arbitraje-hitzar-menek, eraginkor izateko, argiak eta esplizituak izan behar dute, baliozko izateko legezko betekizunak betetzeaz gainera. Kontsumitzaile edo erabiltzaileak lege honen 31. artikuluan aurreikusitakoa ez den beste arbitraje-sistema baten mende jartzeari uko egiteak ez du eragotziko, berez, kontratu nagusia egitea.

5. Enpresa publikoek edo zerbitzu publikoen emakidadunek erabilitako klausula, baldintza edo estipulazioak administrazio publiko eskudunek onartu eta kontrolatu beharko dituzte, baliozko izateko betekizun hori eskatzen denean, eta lege honen 22. artikuluan aurreikusitako kontsulta ere egin beharko da, hala badagokio. Horretaz guztiaz gain, lege honen xedapen orokorren mende egongo dira klausula, baldintza eta estipulazioak.

6. Notarioek eta jabetza- eta merkataritza-erregistratzaileek, beren funtzio publikoko jardun profesionalean, ez dute kontratu edo negozio juridikorik eskuetsiko, ez inskribatuko, baldin eta haietan sartu nahi den klausularen bat abusuzkoa izateagatik deusez deklaratu badu Baldintza Orokorren Erregistroan inskribaturiko eparen batek.

Notarioek, merkataritza-artekariak eta jabetza- eta merkataritza-erregistratzaileek, beren funtzio publikoko jardun profesionalean, informazioa

públicas, informarán a los consumidores en los asuntos propios de su especialidad y competencia».

Tres. Se añade un nuevo artículo 10 bis con la siguiente redacción:

«Artículo 10 bis

1. Se considerarán cláusulas abusivas todas aquellas estipulaciones no negociadas individualmente que en contra de las exigencias de la buena fe causen, en perjuicio del consumidor, un desequilibrio importante de los derechos y obligaciones de las partes que se deriven del contrato. En todo caso se considerarán cláusulas abusivas los supuestos de estipulaciones que se relacionan en la disposición adicional de la presente Ley.

El hecho de que ciertos elementos de una cláusula o que una cláusula aislada se hayan negociado individualmente no excluirá la aplicación de este artículo al resto del contrato.

El profesional que afirme que una determinada cláusula ha sido negociada individualmente, asumirá la carga de la prueba.

El carácter abusivo de una cláusula se apreciará teniendo en cuenta la naturaleza de los bienes o servicios objeto del contrato y considerando todas las circunstancias concurrentes en el momento de su celebración, así como todas las demás cláusulas del contrato o de otro del que éste dependa.

2. Serán nulas de pleno derecho y se tendrán por no puestas las cláusulas, condiciones y estipulaciones en las que se aprecie el carácter abusivo. La parte del contrato afectada por la nulidad se integrará con arreglo a lo dispuesto por el artículo 1258 del Código Civil. A estos efectos, el Juez que declare la nulidad de dichas cláusulas integrará el contrato y dispondrá de facultades moderadoras respecto de los derechos y obligaciones de las partes, cuando subsista el contrato, y de las consecuencias de su ineficacia en caso de perjuicio apreciable para el consumidor o usuario. Sólo cuando las cláusulas subsistentes determinen una situación no equitativa en la posición de las partes que no pueda ser subsanada podrá declarar la ineficacia del contrato.

3. Las normas de protección de los consumidores frente a las cláusulas abusivas serán aplicables, cualquiera que sea la Ley que las partes hayan elegido para regir el contrato, en los términos previstos en el artículo 5 del Convenio de Roma de 1980, sobre la Ley aplicable a las obligaciones contractuales».

emango diete kontsumitzaileei beren espezialitateko eta eskumeneko gaiei buruz».

Hiru. Beste artikulua bat eransten da, 10 bis artikulua, honela idatzirik:

«10 bis artikulua

1. Abusuzko klausulatzat joko dira banan-banan negoziatu ez diren estipulazioak, baldin eta, fede onak eskatzen duenaren kontra, desoreka handia eragiten badute kontratuak alderdiei dakartzkien eskubide eta obligazioen artean, kontsumitzailearen kaltetan. Abusuzko klausulatzat joko dira, beti, lege honen xedapen gehigarrian zerrendatzen diren estipulazio-kasuak.

Klausula baten elementu batzuk edo klausula bat bereiz negoziatu izanak ez du eragotziko kontratuaren gainerako klausulei artikulua hau aplikatzea.

Klausula bat bereiz negoziatu dela baieztatzen duen profesionalak bere gain hartuko du hori frogatzearen karga.

Klausula bat abusuzkotzat jotzeko, kontuan hartuko da kontratuaren objektu diren ondasun edo zerbitzuen izaera, eta orobat begiratu zaie kontratua egin zen uneko inguruabar guztiei eta kontratuaren klausula guztiei edo, kontratua beste baten mendeko bada, kontratu nagusiarenei.

2. Abusuzkotzat jotzen diren klausula, baldintza eta estipulazioak deusez izango dira, eta jarri gabetzat hartuko dira. Deuseztzat jotako kontratu zatia Kode Zibilararen 1258. artikulua xedaturikoaren arabera osatuko da. Klausulak deusez deklaratu dituen epaileak osatuko du kontratua, eta moderatze-ahalmena izango du alderdien eskubide eta obligazioen gainean, kontratuak iraun dirauenean, eta orobat klausula horien eraginkortasun ezaren gainean, kontsumitzaile edo erabiltzailearentzat kaltea nabarmena den kasuan. Dirauten klausulek alderdien artean ekitatezkoa ez den eta ezin zuzendu den egoera bat eragiten dutenean soilik deklaratu ahal izango du epaileak kontratua ez dela eraginkor.

3. Edozein dela ere alderdiek kontratua eraentzeko aukeratu duten legea, aplikatzekoak izango dira kontsumitzaileak abusuzko klausuletatik babesteko arauak, kontratuzko obligazioei aplikatu beharreko legeari buruzko 1980ko Erromako Hitzarmenaren 5. artikuluan aurreikusitako moduan».

Cuatro. Se añade un último párrafo al artículo 23 en los siguientes términos:

«Los poderes públicos asimismo velarán por la exactitud en el peso y medida de los bienes y productos, la transparencia de los precios y las condiciones de los servicios postventa de los bienes duraderos».

Cinco. Se añade un nuevo apartado 9 al artículo 34 con la siguiente redacción:

«9. La introducción de cláusulas abusivas en los contratos».

El actual apartado 9 pasa a numerarse como 10, con el mismo contenido.

Seis. Se añade una disposición adicional primera con esta redacción:

«Disposición adicional primera. Cláusulas abusivas.

A los efectos previstos en el artículo 10 bis, tendrán el carácter de abusivas al menos las cláusulas o estipulaciones siguientes:

I. Vinculación del contrato a la voluntad del profesional

1.^a Las cláusulas que reserven al profesional que contrata con el consumidor un plazo excesivamente largo o insuficientemente determinado para aceptar o rechazar una oferta contractual o satisfacer la prestación debida, así como las que prevean la prórroga automática de un contrato de duración determinada si el consumidor no se manifiesta en contra, fijando una fecha límite que no permita de manera efectiva al consumidor manifestar su voluntad de no prorrogarlo.

2.^a La reserva a favor del profesional de facultades de interpretación o modificación unilateral del contrato sin motivos válidos especificados en el mismo, así como la de resolver anticipadamente un contrato con plazo determinado si al consumidor no se le reconoce la misma facultad o la de resolver en un plazo desproporcionadamente breve o sin previa notificación con antelación razonable un contrato por tiempo indefinido, salvo por incumplimiento del contrato o por motivos graves que alteren las circunstancias que motivaron la celebración del mismo.

En los contratos referidos a servicios financieros lo establecido en el párrafo anterior se entenderá sin perjuicio de las cláusulas por las que el prestador de servicios se reserve la facultad de modificar sin previo aviso el tipo de interés adeudado por el consumidor o al consumidor, así como el importe de otros gastos relacionados con los servicios financieros, cuando aquellos se encuentren adaptados a un índice, siempre que se trate de índices legales y se describa el modo de variación del tipo, o en otros casos de razón válida, a condición

Lau. Honako paragrafo hau eransten zaio bukaeran 23. artikuluari:

«Botere publikoek orobat begiratuko dituzte ondasun eta produktuen pisu eta neurrien doitasuna, prezioen gardentasuna eta ondasun iraunkorren saldu ondoko zerbitzuen baldintzak».

Bost. Honako 9. zenbaki berri hau eransten zaio 34. artikuluari:

«9. Abusuzko klausulak sartzea kontratuetan».

Lehenengo 9. zenbakia 10. geratzen da orain, eduki berarekin.

Sei. Lehenengo xedapen gehigarri bat eransten da, honela idatzirik:

«Lehenengo xedapen gehigarria. Abusuzko klausulak.

10. bis artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, abusuzkotzat joko dira klausula edo estipulazio hauek, gutxienez:

1. Kontratua profesionalaren borondateari lotzea

1. Kontsumitzailearekin kontratua egiten duen profesionalari kontratueskaintza onartzeko edo uzteko edo eman beharreko prestazioa emateko epe luzeegia edo aski zehaztu gabea erreserbatzen dioten klausulak; orobat, kontsumitzailea kontra agertu ezean iraupen jakineko kontratu bat automatikoki luzatzeko aukera aurreikusten duten klausulak, ez luzatzeko borondatea eraginkortasunez adieraztea eragozten duen data-muga bat ezartzen diotenak kontsumitzaileari.

2. Kontratuan adierazitako baliozko arrazoirik gabe kontratua bere alde-tik interpretatzeko edo aldatzeko ahalmena erreserbatzea profesionalari, edo epe jakineko kontratu bat epea baino lehen desegiteko ahalmena, kontsumitzaileari ahalmen bera aitortzen ez zaiolarik, edo iraupen zehatzik gabeko kontratu bat epe neurrigabe labur batean edo arrazoizko aurrerapenarekin jakinarazi gabe desegiteko ahalmena, kausa ez delarik kontratua ez bete izana edo kontratua egin zen uneko inguruabarrak aldatzen dituen zio larriren bat ger-tatu izana.

Finantza-zerbitzuei buruzko kontratuetan, aurreko paragrafoan ezarritakoak ez du eragozten zerbitzu-emaileak beretzako ahalmena erreserbatzea kontsumitzaileak zor duen edo kontsumitzaileari zor zaion interes-tasa aurre-abisurik gabe aldatzeko, eta orobat finantza-zerbitzuekin zerikusia duten beste gastu batzuen zenbatekoa aldatzeko, indize bati egokituak daudenean, betiere indizeak legezkoak badira eta tasa aldatzeko modua deskribatzen bada, edo beste arrazoi baliozkorik bada. Profesionalak, nahitaez, horren berri eman beharko

de que el profesional esté obligado a informar de ello en el más breve plazo a los otros contratantes y éstos puedan resolver inmediatamente el contrato. Igualmente podrán modificarse unilateralmente las condiciones de un contrato de duración indeterminada, siempre que el prestador de servicios financieros esté obligado a informar al consumidor con antelación razonable y éste tenga la facultad de resolver el contrato o, en su caso, rescindir unilateralmente, sin previo aviso en el supuesto de razón válida, a condición de que el profesional informe de ello inmediatamente a los demás contratantes.

3.^a La vinculación incondicionada del consumidor al contrato aun cuando el profesional no hubiera cumplido con sus obligaciones, o la imposición de una indemnización desproporcionadamente alta, al consumidor que no cumpla sus obligaciones.

4.^a La supeditación a una condición cuya realización dependa únicamente de la voluntad del profesional para el cumplimiento de las prestaciones, cuando al consumidor se le haya exigido un compromiso firme.

5.^a La consignación de fechas de entrega meramente indicativas condicionadas a la voluntad del profesional.

6.^a La exclusión o limitación de la obligación del profesional de respetar los acuerdos o compromisos adquiridos por sus mandatarios o representantes o supeditar sus compromisos al cumplimiento de determinadas formalidades.

7.^a La estipulación del precio en el momento de la entrega del bien o servicio, o la facultad del profesional para aumentar el precio final sobre el convenido, sin que en ambos casos existan razones objetivas o sin reconocer al consumidor el derecho a rescindir el contrato si el precio final resultare muy superior al inicialmente estipulado.

Lo establecido en el párrafo anterior se entenderá sin perjuicio de la adaptación de precios a un índice, siempre que sean legales y que en ellos se describa explícitamente el modo de variación del precio.

8.^a La concesión al profesional del derecho a determinar si el bien o servicio se ajusta a lo estipulado en el contrato.

II. Privación de derechos básicos del consumidor

1.^a. La exclusión o limitación de forma inadecuada de los derechos legales del consumidor por incumplimiento total o parcial o cumplimiento defectuoso del profesional.

die lehenbailehen gainerako kontratugileei, aukera izan dezaten kontratua behala desegiteko. Orobat aldatu ahal izango dira iraupen jakinik gabeko kontratu baten baldintzak, alderdi baten erabakiz, finantza-zerbitzuen emaila beharturik badago arrazoizko aurrerapenez kontsumitzailea informatzera eta kontsumitzaileak ahalmena baldin badu kontratua desegiteko edo, hala bada-gokio, bere aldetik kontratua hutsaltzeko; aurre-abisurik gabe, arrazoi balioz-korik izanez gero. Profesionalak, nahitaez, horren berri eman beharko die be-rehala gainerako kontratugileei.

3. Kontsumitzailea kontratuari loturik gelditzea profesionalak bere obli-gazioak bete ez dituen kasuan ere, edo kalte-ordain neurrigabe handia jartzea obligazioak betetzen ez dituen kontsumitzaileari.

4. Baldintza baten mende jartzea prestazioa, baldintza hori betetzea boron-datezkoa duelarik profesionalak eta konpromiso irmoa eskatzen zaiolarik, aldiz, kontsumitzaileari.

5. Erakusgarri huts diren entrega-epeak jartzea, profesionalaren boronda-tearen mende gelditzen direnak.

6. Profesionala libre uztea, guttiz edo partez, bere mandatari edo ordezkari-ek harturiko akordio edo konpromisoak errespetatetik, edo formaltasun ja-kin batzuk betetzearen baitan uztea haien konpromisoak.

7. Ondasuna edo zerbitzua entregatzen den unean jartzea prezioa, edo hitzarturikoaren gainetik jarri ahal izatea profesionalak azken prezioa, ez baterako ez besterako arrazoi objektiborik izan gabe edo, azken prezioa hasieran jarrita-koa baino askoz handiagoa bada, kontratua hutsaltzeko eskubidea aitortu gabe kontsumitzaileari.

Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez du eragozten prezioak indize bati ego-kitzea, indizeak legezkoak badira eta prezioa aldatzeko modua argi eta garbi deskribatzen bada haietan.

8. Ondasun edo zerbitzua kontratuan hitzarturikoa den erabakitzeke esku-bidea ematea profesionalari.

II. Kontsumitzaileari oinarritzko eskubideak kentzea

1. Kontsumitzaileari bere legezko eskubideak kentzea edo mugatzea, modu desegokian, profesionalak bere obligazioak guttiz edo partez bete ez dituelako edo oker bete dituelako.

En particular las cláusulas que modifiquen, en perjuicio del consumidor, las normas legales sobre vicios ocultos, salvo que se limiten a reemplazar la obligación de saneamiento por la de reparación o sustitución de la cosa objeto del contrato, siempre que no conlleve dicha reparación o sustitución gasto alguno para el consumidor y no excluyan o limiten los derechos de éste a la indemnización de los daños y perjuicios ocasionados por los vicios y al saneamiento conforme a las normas legales en el caso de que la reparación o sustitución no fueran posibles o resultasen insatisfactorias.

2.^a. La exclusión o limitación de responsabilidad del profesional en el cumplimiento del contrato, por los daños o por la muerte o lesiones causados al consumidor debidos a una acción u omisión por parte de aquél, o la liberación de responsabilidad por cesión del contrato a tercero, sin consentimiento del deudor, si puede engendrar merma de las garantías de éste.

3.^a. La privación o restricción al consumidor de las facultades de compensación de créditos, así como de la de retención o consignación.

4.^a. La limitación o exclusión de forma inadecuada de la facultad del consumidor de resolver el contrato por incumplimiento del profesional.

5.^a. La imposición de renunciias a la entrega de documento acreditativo de la operación.

6.^a. La imposición de renunciias o limitación de los derechos del consumidor.

III. Falta de reciprocidad

1.^a. La imposición de obligaciones al consumidor para el cumplimiento de todos sus deberes y contraprestaciones, aun cuando el profesional no hubiere cumplido los suyos.

2.^a. La retención de cantidades abonadas por el consumidor por renuncia, sin contemplar la indemnización por una cantidad equivalente si renuncia el profesional.

3.^a. La autorización al profesional para rescindir el contrato discrecionalmente, si al consumidor no se le reconoce la misma facultad, o la posibilidad de que aquél se quede con las cantidades abonadas en concepto de prestaciones aún no efectuadas cuando sea él mismo quien rescinda el contrato.

Besteak beste, ezkutuko bizioei buruzko legezko arauak kontsumitzaileen kaltetan aldatzen dituzten klausulak, saneatzeko obligazioaren ordez kontraturiko gauza konpontzeko edo ordezteko obligazioa jartzen dutenean izan ezik, betiere konpontze edo ordezte horrek ez badio kontsumitzaileari batere gasturik ekartzen, eta ez bazaio kontsumitzaileari kentzen edo murrizten ezkutuko bizioek eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, ez eta, konpontzea edo ordezkoa ematea ezinezkoa den kasuan edo asebetegarri gertatu ez den kasuan, legezko arauen arabera saneatzeko eskubidea ere.

2. Egite edo ez-egite baten ondorioz kontsumitzaileari eragindako kalteengatik edo heriotza edo lesioengatik profesionalak duen erantzukizuna kentzea edo murriztea, edo erantzukizunetik libre uztea zordunaren baimenik gabe kontratua hirugarren bati laga dion kasuan, horrek kontratuaren bermeak gutxitzea ekar badezake.

3. Kredituak konpentsatzeko ahalmena kentzea edo murriztea kontsumitzaileari, eta orobat atxikipenak edo kontsignazioak egiteko ahalmena.

4. Profesionalak kontratua ez betetzeagatik kontsumitzaileak hura desegiteko duen ahalmena mugatzea edo kentzea, modu desegokian.

5. Eragiketaren egiaztagiria jasotzeari uko egitera behartzea.

6. Bere eskubideei uko egitera edo haiek murriztera behartzea kontsumitzailea.

III. Elkarrekikotasunik eza

1. Kontsumitzailea bere betebeharrak eta kontraprestazio guztiak betetzera behartzea, profesionalak bereak bete ez dituen kasuan ere.

2. Uko-egite kasurako kontsumitzaileak ordaindutako kopururen bat atxikitzea, hein bereko kalte-ordaina aurreikusi gabe profesionalak uko egiten duenerako.

3. Profesionalari bere irizpidez kontratua hutsaltzeko baimena ematea, kontsumitzaileari ahalmen bera aitortzen ez bazaio, edo artean eman gabeko prestazioengatik ordainduriko zenbatekoei eusteko aukera ematea profesionalari, kontratua berak hutsaldu duen kasuan.

IV. Sobre garantías

1.^a. La imposición de garantías desproporcionadas al riesgo asumido. Se presumirá que no existe desproporción en los contratos de financiación o de garantías pactadas por entidades financieras que se ajusten a su normativa específica.

2.^a. La imposición de la carga de la prueba en perjuicio del consumidor en los casos en que debería corresponder a la otra parte contratante.

V. Otras

1.^a. Las declaraciones de recepción o conformidad sobre hechos ficticios, y las declaraciones de adhesión del consumidor a cláusulas de las cuales no ha tenido la oportunidad de tomar conocimiento real antes de la celebración del contrato.

2.^a. La transmisión al consumidor de las consecuencias económicas de errores administrativos o de gestión que no le sean imputables.

3.^a. La imposición al consumidor de los gastos de documentación y tramitación que por Ley imperativa corresponda al profesional. En particular, en la primera venta de viviendas, la estipulación de que el comprador ha de cargar con los gastos derivados de la preparación de la titulación que por su naturaleza correspondan al vendedor (obra nueva, propiedad horizontal, hipotecas para financiar su construcción o su división y cancelación).

4.^a. La imposición al consumidor de bienes y servicios complementarios o accesorios no solicitados.

5.^a. Los incrementos de precio por servicios accesorios, financiación, aplazamientos, recargos, indemnización o penalizaciones que no correspondan a prestaciones adicionales susceptibles de ser aceptados o rechazados en cada caso expresados con la debida claridad o separación.

6.^a. La negativa expresa al cumplimiento de las obligaciones o prestaciones propias del productor o suministrador, con reenvío automático a procedimientos administrativos o judiciales de reclamación.

7.^a. La sumisión a arbitrajes distintos del de consumo, salvo que se trate de órganos de arbitraje institucionales creados por normas legales para un sector o un supuesto específico.

8.^a. La previsión de pactos de sumisión expresa a Juez o Tribunal distinto del que corresponda al domicilio del consumidor, al lugar del cumplimiento de

IV. Bermeei buruzkoak

1. Harturiko arriskuarekiko neurrigabeak diren bermeak ezartzea. Neurri-gabetasunik ez dagoela joko da finantza-entitateek hitzarturiko finantzaketa-edo berme-kontratuen kasuan, haien berariazko araudiaren arabera direnean.

2. Kontsumitzailearen gain ezartzea frogaren karga, kontratuko beste alderdiarena behar lukeen kasuetan.

V. Beste batzuk

1. Alegiazko egitate batzuk jaso izana edo haiekiko adostasuna adieraztea kontsumitzaileak, eta, orobat, kontratua egin baino lehen ezin ezagutu izan dituen klausula batzuei atxikitzen zaiela adieraztea.

2. Kontsumitzaileari transmitzea berari ezin egotz dakizkiokeen hutsegite administratibo edo kudeaketazko batzuen ondorio ekonomikoak.

3. Aginduzko legez profesionalari dagozkion dokumentazio- eta izapide-gastuak kontsumitzaileari ezartzea. Bereziki, lehenengo etxebizitza-salerosketan, eroslearen gain ezartzea titulazioa prestatzeak dakartzan eta izatez saltzaileari dagozkion gastuak (obra berria, jabetza horizontala, eraikuntza finantzatzeko hipoteka, edo haren zatitzea eta ezeztatzea).

4. Eskatu gabeko ondasun edo zerbitzu gehigarri edo osagarriak ezartzea kontsumitzaileari.

5. Prezioa igotzea zerbitzu osagarri, finantzaketa, atzerapen, errekaru, kalte-ordain edo penalizazioengatik, ez bada aukerarik eman kasuan-kasuan prestazio gehigarri hori hartzeko edo ez hartzeko, behar bezain argi eta bereiz adierazirik.

6. Espresuki uko egitea ekoizle edo hornitzaileari dagozkion betebeharrak edo prestazioak betetzeari, eta automatikoki erreklamazio-prozedura administratibo edo judizialera igortzea.

7. Kontsumokoak besteko arbitraje batzuen mende jartzea, ez badira arbitraje-organo instituzionalak, lege-arauek sektore edo kasu jakin baterako sortuak.

8. Kontsumitzaileak itunez espresuki adierazi behar izatea bere bizilekuaz, betebeharrak betetzeko lekuaz edo ondasuna —higiezina bada— dagoen lekuaz

la obligación o aquel en que se encuentre el bien si fuera inmueble, así como los de renuncia o transacción respecto al derecho del consumidor a la elección de fedatario competente según la Ley para autorizar el documento público en que inicial o ulteriormente haya de formalizarse el contrato.

9.^a. La sumisión del contrato a un Derecho extranjero con respecto al lugar donde el consumidor emita su declaración negocial o donde el profesional desarrolle la actividad dirigida a la promoción de contratos de igual o similar naturaleza.

10.^a. La imposición de condiciones de crédito que para los descubiertos en cuenta corriente superen los límites que se contienen en el artículo 19.4 de la Ley 7/1995, de 23 de marzo, de Crédito al Consumo.

Las cláusulas abusivas referidas a la modificación unilateral de los contratos y resolución anticipada de los de duración indefinida, y al incremento del precio de bienes y servicios, no se aplicarán a los contratos relativos a valores, con independencia de su forma de representación, instrumentos financieros y otros productos y servicios cuyo precio esté vinculado a una cotización, índice bursátil, o un tipo del mercado financiero que el profesional no controle, ni a los contratos de compraventa de divisas, cheques de viaje, o giros postales internacionales en divisas.

Se entenderá por profesional, a los efectos de esta disposición adicional, la persona física o jurídica que actúa dentro de su actividad profesional, ya sea pública o privada».

Siete. Se añade una disposición adicional segunda con la siguiente redacción:

«Disposición adicional segunda. Ámbito de aplicación

Lo dispuesto en la presente Ley será de aplicación a todo tipo de contratos en los que intervengan consumidores, con las condiciones y requisitos en ella establecidos, a falta de normativa sectorial específica, que en cualquier caso respetará el nivel de protección del consumidor previsto en aquella».

Segunda. Modificación de la legislación hipotecaria

Se modifican los artículos 222, 253 y 258 de la Ley Hipotecaria, aprobada por Decreto de 8 de febrero de 1946, en los siguientes términos:

Uno. El artículo 222 bajo el epígrafe «Sección 1.^a De la información registral» queda con la siguiente redacción:

besteko epaile edo auzitegi bati menderatzen zaiola; orobat, kontratua hasieran edo geroago formalizatuko den agiri publikoa eskuesteko fede-emaila bat aukatzekeo eskubideari itunez uko egin behar izatea edo eskubide horren transakzioa egin behar izatea.

9. Atzerriko zuzenbide bati menderatzea kontratua; hots, zuzenbide hori ez izatea kontsumitzaileak bere negozio-deklarazioa egiten duen lekukoa edo profesionalak mota bereko edo antzeko kontratuak sustatzera bideraturiko jarduera egiten duen lekukoa.

10. Kontu korronteko zorpekoei kreditu-baldintzak ezartzean, 1995eko martxoaren 23ko 7/1995 Kontsumorako Kredituaren Legearen 19.4. artikuluan ezarritako mugak gainditzea.

Kontratuak alde baten erabakiz aldatzeari eta iraupen mugagabeko kontratuak denbora baino lehen desegiteari dagozkion abusuzko klausulak eta ondusun eta zerbitzuen prezioak igotzeari dagozkionak ez dira aplikatzekoak izango kontratu hauetan: baloreei buruzko kontratuak, edozein direla ere haien ordezkapen-modua, finantza-tresnak eta prezioa kotizazio bati, burtsa-indize bati edo profesionalak kontrolatzen ez duen beste finantza-merkatuko tasa bati lotua duten bestelako produktu eta zerbitzuak; eta dibisa-salerosketaren, bidaiatxekeen edo nazioartean dibisatan egindako postazko igorpenen inguruko kontratuak.

Profesionaltzat joko da, xedapen gehigarri honen ondorioetarako, bere lanbide-jarduera publiko edo pribatuan diharduen pertsona fisikoa edo juridikoa».

Zazpi. Bigarren xedapen gehigarri bat eransten da, honela idatzirik:

«Bigarren xedapen gehigarria. Aplikazio-eremua

Kontsumitzaileek parte hartzen duten kontratu guztietan aplikatzekoa izango da lege honetan xedaturikoa, lege honetan ezartzen diren baldintza eta betekizunekin, sektoreak berariazko araudirik izan ezean; berariazko araudiak, edozein kasutan, errespetatu egin beharko du lege honek kontsumitzailearentzat aurreikusten duen babes-maila».

Bigarrena. Hipoteka-legeria aldatzea

Honetara aldatzen dira 1946ko otsailaren 8ko dekretuaren bidez onetsitako Hipoteka Legearen 222., 253. eta 258. artikulua:

Bat. Honela geratzen da 222. artikulua, «1. Atala. Erregistro-informazioa» epigrafean:

«1. Los Registradores pondrán de manifiesto los Libros del Registro en la parte necesaria a las personas que, a su juicio, tengan interés en consultarlos, sin sacar los libros de la oficina, y con las precauciones convenientes para asegurar su conservación.

2. La manifestación, que debe realizar el Registrador, del contenido de los asientos registrales tendrá lugar por nota simple informativa o por certificación, mediante el tratamiento profesional de los mismos, de modo que sea efectiva la posibilidad de publicidad sin intermediación, asegurando, al mismo tiempo, la imposibilidad de su manipulación o televaciado.

Se prohíbe a estos efectos al acceso directo, por cualquier medio físico o telemático, a los archivos de los Registradores de la Propiedad, que responderán de su custodia, integridad y conservación, así como la incorporación de la publicidad registral obtenida a bases de datos para su comercialización.

3. En cada tipo de manifestación se hará constar su valor jurídico. La información continuada no alterará la naturaleza de la forma de manifestación elegida, según su respectivo valor jurídico.

4. La obligación del Registrador al tratamiento profesional de la publicidad formal implica que la misma se exprese con claridad y sencillez, sin perjuicio de los supuestos legalmente previstos de certificaciones literales a instancia de autoridad judicial o administrativa o de cualquier interesado.

5. La nota simple tiene valor puramente informativo y consiste en un extracto sucinto del contenido de los asientos relativos a la finca objeto de manifestación, donde conste la identificación de la misma, la identidad del titular o titulares de los derechos inscritos sobre la misma, y la extensión, naturaleza y limitaciones de éstos. Asimismo, se harán constar las prohibiciones o restricciones que afecten a los titulares o derechos inscritos.

6. Los Registradores, al calificar el contenido de los asientos registrales, informarán y velarán por el cumplimiento de las normas aplicables sobre la protección de datos de carácter personal.

7. Los registradores en el ejercicio profesional de su función pública deberán informar a cualquier persona que lo solicite en materias relacionadas con el Registro. La información versará sobre los medios registrales más adecuados para el logro de los fines lícitos que se propongan quienes la soliciten.

8. Los interesados podrán elegir libremente el Registrador a través del cual obtener la información registral relativa a cualquier finca, aunque no pertenezca a la demarcación de su Registro, siempre que deba expedirse mediante

«1. Erregistratzaileek ikustera emango dizkiete erregistroko liburuak, beharrezkoa den partean, haien iritziz kontsultatzeko interesa duten pertsoneri, bulegotik atera gabe eta liburuak egoki kontserbatzeko kontua izanik.

2. Erregistro-idazpenen edukia informazio-ohar sinple bidez edo ziurtagiri bidez emango du ikustera erregistratzaileak, idazpenak modu profesionalean trataturik, halatan benetakoa izan dadin haiek zuzenean publiko egiteko aukera, eta aldi berean segurtaturik idazpenok ez direla manipulatu edo telematikoki hustuko.

Debeku da zuzeneko irispidea izatea jabetza-erregistratzaileen erregistroetara, zeinahi bitarteko fisiko edo telematikoren bitartez; erregistratzaileek erantzungo dute haien zaintza, osotasun eta kontserbazioaz. Debeku da, orobat, erregistroak datu-baseetara biltzea, merkataritzarako.

3. Ikustera emateko modu bakoitzean, haren balio juridikoa jasoko da. Etengabeko informazioak ez du aldatuko ikustera emateko aukeratutako moduaren izaera, haren balio juridikoaren arabera.

4. Erregistratzaileek publizitate formala modu profesionalean tratatzeko duten betebeharrak berekin dakar publizitate hori modu argi eta errazean adierazi beharra. Legeak aurreikusirik kasuetan, ziurtagiri literalak emango ditu, agintaritza judizial edo administratiboaren edo edozein interesdunen eskariz.

5. Ohar sinpleak informazio-balioa besterik ez du, eta adierazpenaren objektu den finkari buruzko idazpenen laburpen txiki bat da; hartan jasoko dira finkaren identifikazioa, haren gaineko eskubide inskribatuen titularra edo titularrak nor diren, eta eskubideon hedadura, izaera eta mugak. Era berean, inskribaturiko eskubideen titularrari edo titularrei eragiten dieten debeku edo murriztapenak jasoko dira.

6. Erregistratzaileek, erregistro-idazpenen edukia kalifikatzean, datu pertsonalen babesari buruz aplikatu daitezkeen arauen gaineko informazioa emango dute, eta arau horiek betetzen direla begiratu.

7. Erregistratzaileek, beren funtzio publikoko jardun profesionalean, erregistroari loturiko gaiei buruzko informazioa eman beharko diote eskatzen duen edonori. Informazio horretan, adieraziko da eskatzaileek zilegi dituzten xedeak lortzeko erregistroak eskaintzen dituen bitartekorik egokienak zein diren.

8. Nahi duten erregistratzailea aukera dezakete interesdunek finka bati buruzko erregistro-informazioa lortu nahi dutenean, nahiz eta erregistratzailea bere erregistroaren barrutikoa ez izan, betiere informazioa ohar sinple baten

nota simple informativa o consista en información sobre el contenido del Índice General Informatizado de fincas y derechos. La llevanza por el Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles del citado Índice General no excluye la necesidad de que las solicitudes de información acerca de su contenido se realicen a través de un Registrador.

Los Registradores, en el ejercicio profesional de su función pública, están obligados a colaborar entre sí, y estarán interconectados por telefax o correo electrónico a los efectos de solicitud y remisión de notas simples informativas».

Dos. A continuación del artículo 222 se añadirá el siguiente epígrafe: «Sección 2.^a De las certificaciones».

Tres. El artículo 253 queda redactado así:

«1. Al pie de todo título que se inscriba en el Registro de la Propiedad pondrá el registrador una nota, firmada por él, que exprese la calificación realizada, y en virtud de la misma el derecho que se ha inscrito, la persona a favor de quien se ha practicado, la especie de inscripción o asiento que haya realizado, el tomo y folio en que se halle, el número de finca y el de la inscripción practicada, y los efectos de la misma, haciendo constar la protección judicial del contenido del asiento. Asimismo se expresarán los derechos que se han cancelado como menciones o por caducidad, al practicar la inscripción del título.

2. Simultáneamente a la nota de inscripción, extenderá nota simple informativa expresiva de la libertad o gravamen del derecho inscrito, así como de las limitaciones, restricciones o prohibiciones que afecten al derecho inscrito.

3. En los supuestos de denegación o suspensión de la inscripción del derecho contenido en el título, después de la nota firmada por el Registrador, hará constar éste, si lo solicita el interesado en la práctica del asiento, en un apartado denominado «observaciones», los medios de subsanación, rectificación o convalidación de las faltas o defectos subsanables e insubsanables de que adolezca la documentación presentada a efectos de obtener el asiento solicitado. En este supuesto, si la complejidad del caso lo aconseja, el interesado en la inscripción podrá solicitar dictamen vinculante o no vinculante, bajo la premisa, cuando sea vinculante, del mantenimiento de la situación jurídico registral y de la adecuación del medio subsanatorio al contenido de dicho dictamen. Todo ello sin perjuicio de la plena libertad del interesado para subsanar los defectos a través de los medios que estime más adecuados para la protección de su derecho».

bidez eman beharrekoa bada edo finka eta eskubideei buruzko Indize Orokor Informatizatuaren edukiari buruzkoa baldin bada. Indize Orokor hori Jabetza Erregistratzaileen Elkargoak eramanagatik, haren edukiari buruzko informazioa erregistratzaile baten bitartez eskatu behar da.

Erregistratzaileak, beren funtzio publikoko jardun profesionalean, beharturik daude elkarri laguntzera, eta telekopia-zerbitzuaren bidez edo posta elektronikokoaren bidez konektaturik egongo dira informazio-ohar sinpleak eskatu eta bidaltzeko».

Bi. Epigrafe hau gehituko da 222. artikulua ondotik: «2. Atala. Ziurtagiriak».

Hiru. Honela idatzirik geratzen da 253. artikulua:

«1. Jabetza Erregistroan inskribatzen den titulu ororen oinean, erregistratzaileak, berak sinaturiko ohar batean, adieraziko du zer kalifikazio ematen dion tituluari, kalifikazio horri dagokionaren arabera zer eskubide inskribatu den, nonen alde egin den idazpena, zer eratako inskripzio edo idazpena egin den, zer tomo eta orritan egin den, finkaren zenbakia eta inskripzioaren zenbakia, eta inskripzioaren efektuak, idazpenaren edukiak zer babes judizial duen adierazirik. Orobat, titulua inskribatzean, adieraziko da zer eskubide ezeztatu diren, aipu bitartez edo iraungitzeagatik.

2. Inskripzio-oharra ateratzen duen aldi berean, informazio-ohar sinple bat aterako du erregistratzaileak, eta hartan adieraziko: inskribaturiko eskubidea libre dagoen edo zamarik duen, eta haren gaineko mugapenik, murriztapenik edo debekurik baden.

3. Tituluko eskubidea inskribatzea ukatu edo geldieran utziz gero, erregistratzaileak, berak sinaturiko oharren ondotik, honako hauek jasoko ditu, interesdunak eskatuz gero, «oharpenak» izendaturiko atal batean: zer bide dagoen, idazpenerako aurkezturiko dokumentazioak huts edo akats zuzengarri nahiz ezin zuzenduzkorik izanez gero, haiek moldatzeko, zuzentzeko edo baliozkotzeko. Halakoetan, kasua bereziki zaila izanez gero, inskripzioa egin nahi duenak irizpena eskatu ahal izango du, lotura-indarra duena edo ez duena; lotura-indarra badu, bete beharreko baldintza izango da egoera juridiko-erregistrala bere horretan uztea eta zuzendu beharrekoa zuzentzeko bidea irizpen horren edukiaren arabera izatea. Horrek guztiak ez du eragozten interesduna libre izatea akats horiek zuzentzeko, bere eskubideak babesteko egokien ikusten dituen bideetatik».

Cuatro. El artículo 258, que irá precedido del epígrafe «Información y protección al consumidor», queda redactado así:

«1. El Registrador, sin perjuicio de los servicios prestados a los consumidores por los centros de información creados por su colegio profesional, garantizará a cualquier persona interesada la información que le sea requerida, durante el horario habilitado al efecto, en orden a la inscripción de derechos sobre bienes inmuebles, los requisitos registrales, los recursos contra la calificación y la minuta de inscripción.

2. El Registrador denegará la inscripción de aquellas cláusulas declaradas nulas de conformidad con lo dispuesto en el párrafo segundo del artículo 10 bis de la Ley 26/1984, de 19 de julio, General para la Defensa de los Consumidores y Usuarios.

3. Los interesados en una inscripción, anotación preventiva o cancelación, podrán exigir que antes de extenderse estos asientos en los libros se les dé conocimiento de su minuta.

Si los interesados notaren en la minuta de inscripción realizada por el Registrador algún error u omisión, podrán pedir que se subsane, acudiendo al Juzgado de Primera Instancia en el caso de que el Registrador se negare a hacerlo.

El Juez, en el término de seis días, resolverá lo que proceda sin forma de juicio, pero oyendo al Registrador.

4. El Registrador cuando, al calificar si el título entregado o remitido reúne los requisitos del artículo 249 de esta Ley, deniegue en su caso la práctica del asiento de presentación solicitado, pondrá nota al pie de dicho título con indicación de las omisiones advertidas y de los medios para subsanarlas, comunicándolo a quien lo entregó o remitió en el mismo día o en el siguiente hábil.

5. La calificación del Registrador, en orden a la práctica de la inscripción del derecho, acto o hecho jurídico, y del contenido de los asientos registrales, deberá ser global y unitaria».

Tercera. Existirá un Registro de Condiciones Generales de la Contratación al menos en la cabecera de cada Tribunal Superior de Justicia.

Cuarta. Las referencias contenidas en la Ley de Enjuiciamiento Civil a los consumidores y usuarios, deberán entenderse realizadas a todo adherente, sea o no consumidor o usuario, en los litigios en que se ejerciten acciones indivi-

Lau. Honela geratzen da 258. artikulua, «Kontsumitzaileari eman beharreko informazioa eta babes» epigrafearen azpian:

«1. Erregistratzaileak, bere elkargo profesionalak sorturiko informazio-zentroetan kontsumitzaileei ematen zaien zerbitzua eragotzi gabe, eskatutako informazioa segurtatuko dio edonori, horretarako jarritako ordutegian, ondasun higiezinaren gaineko eskubideen inskripzioaz, erregistratzeko betekizunez, kalifikazioaren kontrako errekurtoez eta inskripzioaren zerbitzu-sariaz.

2. Klausularen bat deusez deklaratu bada 26/1984 Legearen 10 bis artikularen arabera —26/1984 Legea, 1984ko uztailaren 19koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Orokorra—, erregistratzaileak ezezkoa emango dio klausula hori inskribatzeari.

3. Inskripzio, prebentziozko idatz-ohar edo ezeztatze bat egin nahi dutenek eskubidea izango dute, idazpen horiek egin aurretik, zerbitzu-sariaren berri eman diezaieten.

Interesdunek, akats edo omisioren bat hautematen badute erregistratzaileak egingako inskripzioaren zerbitzu-sarian, hura zuzentzeko eskatu ahal izango dute, eta, erregistratzaileak zuzentzeari uko eginez gero, lehen auzialdiko epaitegira jo ahal izango dute.

Epaileak, sei egunen epean, dagokiona ebatziko du, epaiketa-formarik gabe baina erregistratzaileari entzunda.

4. Baldin eta erregistratzaileak, entregatu edo igorri zaion tituluak lege honen 249. artikuluko betekizunak betetzen dituen kalifikatzean, ezezkoa ematen badio eskatutako idazpena egiteari, titulu horretako oin-ohar batean adieraziko du zer huts hauteman dituen eta zer bide dagoen haiek zuzentzeko, eta titulua entregatu edo bidali zionari jakinaraziko dio hori, egun berean edo hurrengo egun baldiodunean.

5. Erregistratzailearen kalifikazioa, eskubide edo egitate juridikoaren inskripzioari eta erregistro-idazpenen edukiari dagokionez, osotasunezkoa eta bateratua izango da».

Hirugarrena. Kontratuetak baldintza orokorren erregistro bat izango da justizia-auzitegi nagusi guztien hiriburuan bederen.

Laugarrena. Prozedura Zibilaren Legean kontsumitzaile eta erabiltzaileak aipatzen direnean, ulertu behar da atxikimendu-emaile oro aipatzen dela, izan kontsumitzaile edo erabiltzaile edo ez, Kontratuetak Baldintza Orokorren

duales o colectivas derivadas de la presente Ley de Condiciones Generales de la Contratación.

Asimismo, las referencias contenidas en la Ley de Enjuiciamiento Civil a las asociaciones de consumidores y usuarios, deberán considerarse aplicables igualmente, en los litigios en que se ejerciten acciones colectivas contempladas en la presente Ley de Condiciones Generales de la Contratación, a las demás personas y entes legitimados activamente para su ejercicio.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Única. Aplicación y adaptación

Los contratos celebrados antes de la entrada en vigor de esta Ley, que contengan condiciones generales, podrán inscribirse en el Registro de Condiciones Generales de la Contratación, salvo que por norma expresa se determine la obligatoriedad de la inscripción, en cuyo caso deberán hacerlo en el plazo que indique dicha norma.

Desde la entrada en vigor de esta Ley, podrán ejercitarse las acciones de cesación, de retractación y declarativa reguladas en la misma.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Única. Queda derogado el apartado 2 de la disposición adicional segunda de la Ley 36/1988, de 5 de diciembre, de Arbitraje.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Título competencial

Todo el contenido de la presente Ley es, conforme al artículo 149.1.6.^a y 8.^a de la Constitución Española, de competencia exclusiva del Estado.

Segunda. Autorizaciones

Se autoriza al Gobierno para dictar las disposiciones de desarrollo o ejecución de la presente Ley, en las que podrán tomarse en consideración las especialidades de los distintos sectores económicos afectados, así como para fi-

Lege honetatik eratorritako azaldutako akzio indibidual edo kolektiboak baliatzen diren auzietan.

Halaber, Prozedura Zibilaren Legean kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartek aipatzen direnean, ulertu behar da berdin aplika dakiokela, Kontratuetak Baldintza Orokorren Lege honetan jasotako akzio kolektiboak baliatzen diren auzietan, ulertu behar da akzio horiek baliatzeko edozein pertsona eta enteri.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Aplikazioa eta egokitzea

Lege hau indarrean sartu aurretik egindako kontratuak, baldintza orokorrak baldin badituzte, Kontratuetak Baldintza Orokorren Erregistroan inskribatu ahal izango dira. Inskribatzea nahitaezkoa dela agintzen bada berriazko arau batean, arau horrek ezartzen duen epean egin beharko da inskripzioa.

Lege hau indarrean sartzen denetik, beronetan arauturiko bukarazte-, erretraktate eta deklarazio-akzioak baliatu ahal izango dira.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Bakarra. Derogaturik gelditzen da 1988ko abenduaren 5eko 36/1988 Arbitraje Legearen bigarren xedapen gehigarriko 2. zenbakia.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Eskumenak

Lege honen eduki guztia Estatuaren eskumen eskusiboa da, Espainiako Konstituzioaren 149.1.6. eta 149.1.8. artikuluen arabera.

Bigarrena. Baimenak

